

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

ZUZENBIDE FAKULTATEA (LEIOAKO ATALA)

2020-2021 IKASTURTEA

GRADU AMAIERAKO LANA

**ZORU KLAUSULEN ETA HAUEN NOBAZIOAREN HURBILKETA TEORIKO-
PRAKTIKOA**



AUTOREA: MARKEL BRAVO BARTOLOMÉ

ZUZENDARIA: JON ATXUTEGI GUTIERREZ

AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	3
LABURPENA.....	4
I.- SARRERA.....	5
II.- ZORU KLAUSULA ETA HONEN NOBAZIOA HIPOTEKA KONTRATUETAN.....	6
1.- Zoru klausulen kontzeptualizazioa.....	6
2.- Zoru klausulen inguruko jurisprudenziaren eboluzioa.....	11
2.1.- Auzitegi Goreneko zibileko salako 2013ko Maiatzaren 9ko sententzia: gehiegikeriaz ordaindutako zenbatekoen atzeraeragin ezaren deklarazioa.....	11
2.2.- Auzitegi Goreneko zibileko salako 2015eko Martxoaren 25eko sententzia: “Ex tunc” egoerara bueltatu bai ala ez?.....	17
2.3.- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2016ko Abenduaren 21ean emandako sententzia: atzeraeraginaren mugaketaren ezabatzea.....	20
3.- Kontsumitzaileen epaiketaz kanpoko erreklamazioa: 1/2017 Errege Dekretua...22	
4.- Zoru klausulen nobazioa.....	27
4.1.- Nobazioaren kontzeptualizazioa.....	27
4.2.- Nobazioaren nulitate kausak.....	33
4.3.- Bereziki hipoteka maileguaren nobazioa.....	35
III.- ZORU KLAUSULEN ETA NOVAZIOAREN EBAZPEN PRAKTIKOA.....	39
1.- Hipoteka maileguaren eskrituraren azterketa.....	40
2.- Bilboko Lehen Instantziako epaitegian tarteratutako demandaren azterketa...41	
3.- Bilboko Lehen Instantziako Epaitegiaren sententziaren azterketa (50214/2018 sententzia).....	42
4.- Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren sententziaren azterketa (SAP BI 2216/2019).....	43
IV.- ONDORIOAK.....	44

V.- BIBLIOGRAFIA.....	45
1.- Doktrina.....	45
2.- Webguneak.....	47
VI.- ERABILITAKO JURISPRUDENTZIA.....	48
VII.- ERANSKINAK.....	49
1.- Eranskina.....	49
2.- Eranskina.....	55
3.- Eranskina.....	59
4.- Eranskina.....	66

LABURDURAK

AG Auzitegi Gorena

art artikulua

BOE Boletín Oficial del Estado

EBJA Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

ECLI European Case Law Identifier

ED Errege Dekretua

KZ Kode Zibila

OJ Oinarri juridikoa

PA Probintzia Auzitegia

ROJ Repositorio Oficial de Jurisprudencia

SAP Sentencia de la Audiencia Provincial

STS Sentencia del Tribunal Supremo

LABURPENA

Lan honen helburua zoru klausulen eta hauen nobazioaren kontzeptuak azaltzea da; horretarako, lehenik eta behin historia hurbilean izan dituzten nondik norakoak aztertuko dira, bigarrenik, hauen inguruko eboluzio jurisprudenziala ikertze aldera. Bukatzeko, lanaren azken atalean, zoru klausulen errealitateko kasu baten azterketa gauzatu da, kontsumitzaileek gaur eguneko egoerara heldu arte jarraitu behar izan dituzten pausoak landuko direlarik: hipoteka maileguaren eskrituratik Probintzia Auzitegiko sententziara artekoa, gaur egunean kasu zehatz hau AG-an aurkitzen delarik.

HITZ GAKOAK: Zoru klausula, nobazioa, kontsumitzaile, finantza entitate.

I. SARRERA

Gaur egun zoru klausulak edonork ezagutzen ditu edo, behintzat, klausula mota hauen nondik norakoak zuzenbidean aditua ez den pertsona batek erraz uler ditzake. Hala ere, denboran atzera egiten baldin badugu, inork ez zuen klausula hauen berririk. Kontsumitzaileek egindako esfortzua dela eta, 2010. urtetik aurrera ezagunak bilakatu ziren, kontsumitzaileak konturatu baitziren hainbat bankuk zoru klausula txertatzen zutela izaera aldakorreko hipoteka maileguaren baitan, kontsumitzaileari edota hipotekatuari inolako informaziorik eskaini gabe.

Hau dela eta, lan honen helburua zoru klausulen kontzeptua azaltzea da, gertakari historikoei erreferentzia eginez zoru klausulen eboluzioa ulertzeko. Honetarako, azalpen teorikoak garapen historiko batekin irudikatu dira irakurleari gaiaren ezagutza sakonagoa emateko. Gainera, jurisprudenziaren aldetik eta zoru klausulen testuinguruan, hiru sententzia garrantzizkoenak aztertzea komeni izan da, ez bakarrik hauek izan duten garapenagatik, baizik eta espainiar ordenamenduko epaiak Europar Batasunean emandako epaiekin kontrajartzen direla uztartzeko.

Zoru klausulak aztertze unean, lana sortzeko momentuan, harreta deitu didan instituzioa nobazioarena izan da. Ikus daitekeen bezala lanean finantza entitateek bezeroei plazaratutako irtenbide moduan eman izan da eta azken urteotan garrantzia handiago eman izan zaio, jatorriz nulua zen klausula baten eraldatzea suposatzen zuelako eta are gehiago, nobazioarekin batera bezeroen eta entitateen arteko gatazka juridikoen behin betiko uztea suposatzen zuelako. Hobe esanda, bezeroek bankuaren aurkako edozein akzio tarteratzeari uko egitea.

Azken egoera hau hobeto azaltzeko asmotan ere, komeni izan da ez soilik jurisprudenzia ulerkorra ekartzea, baizik eta bankuen eta bezeroen arteko judizioz kanpoko akordioa ondo islatzen duena azaltzea. Lanaren azkenengo zatia zoru klausula eta nobazioa dituen errealitateko eta hurbiletik ikusi izan dudana kasu baten azalpen eta analisisa da, dokumentazioarekin batera azalduko dudana. Horretarako 4 eranskin txertatuko dira dokumentuan, irakurleak lanaren azkenengo zatia irakurtzean argi uler dezan azalpenak nondik nora doazen.


II. ZORU KLAUSULA ETA HAUEN NOBAZIOA HIPOTEKA KONTRATUETAN

1.- Zoru klausulen kontzeptualizazioa

Hipoteka mailegu kontratuen baitan txertatzen den klausula mota bat da. Klausula honek helburu bat du eta helburu hori da batik bat, mailegu-hartzaileak ordaindu beharreko interesetan muga batzuk ezartzea. Beraz klausula honek bi muga ditu, hau da, goranzkoa -“cláusula techo” izenaz ezagunagoa- eta beheranzkoa -“cláusula suelo” izenaz ezagunagoa-¹. Edozein kasutan zoru klausulak zer diren hobeto ulertzeko 1997. urtera egin behar dugu atzera. Urte hartan Higiezin Burbuila² eman zen, hau da, ondasun higiezinaren prezioen hazkunde azkar bat,

¹Honen harira, autore anitzek idatzi dute, besteak beste, LLAMAS POMBO, Eugenio: “La nulidad de las cláusulas suelo”, *Ars Iuris Salmanticensis*, 2013, 11-17. orr: “Nos referimos a aquella condición general de un contrato de préstamo hipotecario concertado a interés variable, que establece un tipo mínimo y máximo de referencia, es decir, una cláusula limitativa del tipo de interés, esto es, la conocida como «cláusula suelo-techo» (...) la jurisprudencia a que nos referíamos afirma que, a pesar de la existencia de una escritura pública y del control efectuado por el notario, en el proceso hay un desconocimiento de la oferta vinculante, de donde resulta que no hay prueba de la información sobre la cláusula que opere como presupuesto del conocimiento por la misma del actor”. Aurreko autorearen azalpenen harira DURÁN-SINDREU BUXADÉ Antonio: “El adiós a las cláusulas suelo”, *Revista Acofar*, 2014, 54-55. orr: “El problema radica cuando en estos tipos de interés referidos como cláusulas suelo y techo, el límite de variabilidad a la baja es inferior al límite de variabilidad al alza”.

²Ildo honetatik, ÁLVAREZ ALBA, Javier: “Crecimiento y estallido de la burbuja inmobiliaria en España: causas y consecuencias”, *Cuadernos del Tomás*, 2017, 17-34. orr: “Las condiciones del mercado hipotecario fueron uno de los primeros detonantes de esta crisis económica, , las cuales fueron generando unas expectativas alcistas de precios sobre las personas, que acabaron siendo decisivas en este estallido, haciendo creer a éstas que los precios nominales de las viviendas nunca caerían (...). El inicio del crecimiento de la burbuja inmobiliaria en nuestro país se puede situar a partir de nuestra adhesión a la Unión Europea, ya que con la transmisión de políticas que pasarían a ser comunes se forman causas que tendrán que ver con la formación de la burbuja (...). Tanto es así, que el precio de la vivienda se incrementó desde el año 2002 hasta el año 2007 en un 44'16% siguiendo las cifras del Ministerio de Fomento de los precios de la vivienda (...). El crecimiento de la demanda de la vivienda fue espectacular. Tanto es así que la oferta, aunque aumentó de forma considerable, no lo hizo suficientemente para poder absorber la demanda sin generar un aumento de los precios de la vivienda”.



zeinetan gerora ondorioztatu zen, hazkunde hura espekulazioan oinarrituta zegoela. Beraz ondasun higieziari haien balio errealek gorako balorazioa ematen zitzairen, eta balorazio edo neurketa hori “IPV” (*Índice de Precios de Vivienda*)³ izeneko instrumentuaren bidez gauzatzen zen. Honen bidez etxebizitzaren salerosketa prezioaren eboluzioa neurtzen zen eta gerora etxebizitzek izango zuten prezioa ezagutzea edo, behintzat, gutxi-gorabeherako salneurria ezagutzea ahalbidetzen zuen.

Hala eta guztiz ere 2007. urtean prezioen gorengo maila bat eman zen eta burbuila lehertu zenean 2008-2011. urteetako krisi ekonomiko gogorra eman zen. Honen harira, 1997 eta 2007 urteen artean banku eta kontsumitzaileen arteko hipoteka mailegu kontratuetan zoru klausula txertatzen zen. Horrela, etxebizitzaren prezioa handiagoa izanik, jendeak mailegu handiagoak eskatzen zituen eta horren ondorioz zoru klausula bezalako interesarekin entitateek haien irabaziak areagotzea lortzen zuten. Hala ere, nahiz eta zoru klausula ez izan burbuilaren eragile, kontuan hartu beharreko kontzeptua da⁴. Izan ere, burbuilaren hasieratik klausula hauek txertatzen hasi baitziren finantza entitateak. Honek suposatu zuena izan zen, kontsumitzaile askok, jada krisi ekonomikoan murgildurik interes aldakorreko hipotekak sinatu zituztela eta nahiz eta Euriborraren jaitsiera nabarmena eman, beti ordaindu beharko zutelako bankuarekin adostutako interes minimo hura.

Espainiako Bankuak igorritako azken txostenak adierazi zuen bezala, iruzurrez, bankuek 4000 miloi euro kobratu zituzteten gehiegikeriaz haien bezeroei zoru klausuletako interesen bitartez.

³Kontzeptu honen nondik norakoak hobeto ezagutzeko hurrengoko webgunera joatea komeni da: https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736152838&menu=ultiDatos&idp=1254735976607 INE. Índice de precios de vivienda: “El **Índice de Precios de Vivienda (IPV)** tiene como objetivo la medición de la evolución de los precios de compraventa de las viviendas de precio libre, tanto nuevas como de segunda mano, a lo largo del tiempo. La fuente de información utilizada procede de las bases de datos sobre viviendas escrituradas que proporciona el Consejo General del Notariado, de donde se obtienen los precios de transacción de las viviendas, así como las ponderaciones que se asignan a cada conjunto de viviendas con características comunes. La muestra utilizada para esta estadística comprende todas las viviendas escrituradas en el trimestre de referencia”.

⁴Horrela adierazten dute honako autore hauek abusuzko klausulak zer diren, CÁRDENAS FERNÁNDEZ, María: “Cláusulas abusivas”, *Junta de Andalucía Consejería de Fomento y vivienda*, 2015, 107-149.orr: “Las cláusulas abusivas son todas aquellas estipulaciones no negociadas individualmente y todas aquellas prácticas no consentidas expresamente que, en con tra de las exigencias de buena fe, causen, en perjuicio del consumidor y usuario, un desequilibrio importante de los derechos y obligaciones de las partes que se deriven del contrato. El carácter abusivo de una cláusula se apreciará teniendo en cuenta la naturaleza de los bienes o servicios objeto del contrato y considerando todas las circunstancias concurrentes en el momento de su celebración. Estas cláusulas son nulas de pleno derecho”.

Espainiako Bankuak ere estimatu zuen zenbat espainiar suertatuko ziren kaltetuta abusuzko klausula hauen ondorioz. Haien zenbakiek adierazten zuten, hiru milioi espainiar baino gehiago kaltetu zirela klausula hauen txertatzea lehenengoz eman zenetik. Hala ere, pertsona askok galdera berdina egin ohi zioten bere buruari; Nola eta non identifikatu dezakegu zoru klausula? Jende askok ez zekien non identifikatu zitzakeen aipatutako abusuzko klausula hauek eta kontsumitzaile gehienek logika guztiz, etxebizitzaren erosketaren eskrituretara jotzea erabakitzen zuten. Etxebizitzaren eskrituretan aldiz ez zuten inolako informaziorik aurkitzen klausula mota horietaz. Zoru klausula identifikatzeko beraz⁵, hipoteka maileguko eskrituretara


⁵Identifikazioa eta eredu praktiko bat jarritz, CÁRDENAS FERNÁNDEZ, María: “Cláusulas abusivas”, Estudios jurídicos sobre vivienda y deshaucio, *Junta de Andalucía Consejería de Fomento y vivienda*, 2015, 107-149.orr: “Concluimos con la definición de cláusula abusiva mediante un ejemplo de contrato no negociado individualmente con la introducción de una cláusula suelo en un préstamo hipotecario: Hipótesis: Un sujeto X, en 2005, se dirige al banco La Caixa para pedir un préstamo hipotecario, y firma el mismo día una hipoteca de treinta años de duración. Supongamos que ese año el Euribor se encontraba en un 3,5%, y que a este se le suma ría un tipo de interés de las cláusulas del 1,5%, por lo que resultaría interés total del 5% En 2006 sube el Euribor, y la cantidad final sigue aumentando. Suponiendo que sube el Eunbor a un 3,9%, sumándole el tipo de interés del 1,5% (que es fijo), se establece una suma total del 5,4%. Así ocurre sucesivamente, año tras año, hasta llegar a 2014. En 2014, el Euribor ha bajado a un 0,5 %, y el tipo de interés sigue siendo el mismo (1,5 %). Por tanto, lo correcto sería pagar un interés total del 2% Pero ¿cuál es el problema? Pues que el sujeto X tenía incorporada en su contrato una clausula suelo con un minimo del 3%, por lo que nunca podría pagar menos de esa cantidad. Ese uno por ciento de diferencia entre lo que debería pagar y lo que realmente paga, por tener la cláusula suelo en su préstamo hipotecario, se considera abusivo. También puede tener una cláusula techo, que sería el máximo interés a pagar que supongamos que es del 12%”. **Nola kalkulatu dezakegu zoru klausula?** Demagun $X = \% 2.75$ dela (X zoru klausularen balio nominalak, hau da, $\% -0.5$, hipoteka mailegua eskuratu duen pertsonak, nahiz eta Euriborra maileguko zoru klausulako indizea baino baxuago izan, mailegudunak beti ordaindu beharko du $\% 2.75$ -eko interes tipoa. Badakigunez, honek mailegudunari kalte bat suposatuko lioke, izan ere eta lehenago azaldu bezala, honek $\% 2.75$ -eko interesa ordaindu behar izango duelako nahiz eta Euriborraren indizea askoz ere baxuagoa izan. Pertsona batek errealitateari dagokionez ordaindu behar lukeena kalkulatzeko, lehenik eta behin ulertu behar duguna da, interes aldakorraren kalkulua egiteko, bi balio gehitu behar ditugula. Balio hauek izango dira alde batetik erreferentziazko indizea (Euriborra) eta beste alde batetik balore diferentziala edo interes finko bezala ezagunagoa dena. Kontua da, Euriborraren balioa $\% -0.5$ ekoa dela jotzen baldin badugu eta diferentziala $\% 0.6$ koa (diferentziala da interes finkoa), printzipioz pertsona batek errealitatean ordaindu beharko lukeena $\% 0.1$ a litzateke. Hala ere, zoru klausularen balio nominalak, hau da, $\% 2.75$ ak esaten digu beti ordaindu beharko dugula hau, izan ere hori izango delako muga. Honek suposatzen du kontsumitzaileak $\% 2.65$ eko alde hori jasango duela, nahiz eta azaldutako balore horien gehiketa baxuagoa izan.Taula honetan irudikatzen da Euriborrak azkenengo urteetan jasan dituen fluktuazioak, 2021eko urtarrilean $\% -0,5$ eko balioa duelarik. Aipatzekoa da, geroago sakonago praktikara eramango dudun arren, diferentzialaren balioa bankuak eskrituretan adierazten zuela.

jo behar zuten eta jada hura eskuartean zutela, klausula hau modu ezberdinetan adierazten zela ikusi ahal izan zuten⁶. “*Límites a la aplicación del interés variable*”, “*Límite de la variabilidad*” edota “*Tipo de interés variable*”⁷ bezalako terminologia erabili ohi zen hipoteka maileguko eskrituretan⁸.

Euribor a un año (Media Mensual):

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Enero	0,042	-0,095	-0,189	-0,116	-0,253	-0,505
Febrero	-0,008	-0,106	-0,191	-0,108	-0,288	
Marzo	-0,012	-0,110	-0,191	-0,109	-0,266	
Abril	-0,010	-0,119	-0,190	-0,112	-0,108	
Mayo	-0,013	-0,127	-0,188	-0,134	-0,081	
Junio	-0,028	-0,149	-0,181	-0,190	-0,147	
Julio	-0,056	-0,154	-0,180	-0,283	-0,279	
Agosto	-0,048	-0,156	-0,169	-0,356	-0,359	
Septiembre	-0,057	-0,168	-0,166	-0,339	-0,415	
Octubre	-0,069	-0,180	-0,154	-0,304	-0,466	
Noviembre	-0,074	-0,189	-0,147	-0,272	-0,481	
Diciembre	-0,080	-0,190	-0,129	-0,261	-0,497	

Gráfico de evolución del Euribor Mensual:



⁶Bere doktorego tesian hala dio VALLÉS PERELLÓ, Antonio: *Sistemas de control de la cláusula de interés variable en los préstamos hipotecarios*, Universitat de les Illes Balears, 2020, 53. orr: “La generalización de los préstamos a interés variable supone que el prestatario asuma la totalidad del riesgo de tipo de interés, es decir, tendrá que asumir las fluctuaciones de los tipos de interés de su concreta operación, lo que obviamente plantea un incremento del riesgo de impago en función del porcentaje de endeudamiento del deudor en relación con el volumen de ingresos y con la evolución de los tipos de interés (...) Ocurrirá en los supuestos de préstamos a tipo de interés fijo, incluso en no pocos casos de operaciones a interés variable, en las que, por ejemplo, el diferencial es de varios puntos porcentuales, de tal manera que se está pagando un interés muy superior al real del mercado o en aquellas operaciones con cláusula suelo (en la mayoría de casos con suelo del 3,5 % ó 4 %) que si los tipos de interés disminuyen los prestatarios pueden desear cancelar el crédito obtenido y financiarse a tipos más acordes con el mercado”.

⁷Interes aldakorraren txertaketari buruz burbuilaren garaian hau dio LASARTE ÁLVAREZ, Carlos: *Derechos reales y Derecho hipotecario*, Marcial Pons, 2005, 73. orr : “La alta tasa de inflación característica de España durante décadas ha determinado que los intereses hipotecarios hayan sido igualmente muy altos (al menos, en comparación con otros países de nuestro entorno cultural y económico) y además inamovibles hasta prácticamente la década de 1980, en la que se ha logrado reducir la inflación a términos razonables. Hasta entonces, se partía de la base de que el interés predeterminado en el momento de constitución de la hipoteca mantenía durante todo el período su vigencia (...) la Dirección General de los Registros y del Notariado se ha mostrado muy renuente a admitir las cláusulas de interés variable, cosa que sólo ha sido posible recientemente cuando los tipos de interés han ido descendiendo”.

⁸Horrela azaltzen da CÁMARA LAPUENTE, Sergio: “Comentario de la sentencia del tribunal supremo de 8 de septiembre de 2014 (3903/2014)”, *Comentarios a las sentencias de unificación de doctrina: civil y mercantil*, Bol. 6, 2016, , 201-221. orr: “Como se ve, la fundamentación trata de aplicar al caso concreto los parámetros delineados en la STS de 9 de mayo de 2013, pero como parece demostrar el voto particular, existen algunos detalles del caso, o al menos de alguno de los contratos enjuiciados, que no hacen tan palmaria la conclusión. **Según el magistrado disidente** –no con el control de transparencia sino con su aplicación al caso–, **la ubicación es correcta y siempre la misma, dentro de la que lleva por rúbrica “tipos de interés variable”**; en la mayoría de los contratos tanto el diferencial como el tipo de interés mínimo sí aparecen destacados en negrita; en los contratos en que sí existe oferta vinculante es “extremadamente clara” y esquemática, y en ella se destacaba en una página sin aditamentos el tipo mínimo junto al tipo de interés aplicable; y concluye con el aserto antes visto de la falta de sorpresa o incomprensión sobre la cláusula suelo en contratos firmados en 2007 y 2008 –no en períodos anteriores– donde “era común y conocida su inclusión”.

Egoera hura ikusirik 2000. urteko lehenengo hamarkadaren amaieran, Euriborraren jaitsiera nabarmenaren ondorioz, lehenengo erreklamazioak hasi ziren kontsumitzaile kaltetuen bultzadaren indarraz. Jendea ohartu zen komunikazio hedabideen bitartez Euriborrak beheranzko joera hartu zuela, baina hipotekarengatik ordaindu beharreko kuotak ez zuen behera egiten nahiz eta indize hori hipotekari lotua egon. Hori dela eta lehenengo demanda kolektiboak tarteratzen hasten dira, lehendabizi abokatuak eta geroago kontsumitzaileen elkarteak. Demanda horietan, gehienbat eskatzen zen klausula horien deuseztasuna kontsumitzaileen eskubideen aurkako kutsua baitzuten. Deuseztasun akzioarekin batera klausula horien aplikazioa zela eta, kontsumitzaileek egindako gehiegizko ordainketen bueltatzea eskatzen zen⁹. Zoru klausulen existentzia pil-pilean zegoen eta hau ulertzeko garai historikoa kontuan hartu behar dugu. Gogoratu beharra daukagu Espainia krisi ekonomiko larri batean murgilduta zegoela garai hartan eta gaur egunean hala jarraitzen duen arren

⁹Deuseztasunari buruz hala mintzatzen da LÓPEZ FRIAS, Ana Maria: “Clases de nulidad parcial del contrato en Derecho Español”, *Anuario de derecho civil*, Bol. 43, 3 Zk, 1990, 851-866. orr: “Se observa en una cantidad creciente de sentencias de nuestros tribunales, especialmente del Tribunal Supremo, la referencia a la nulidad parcial del negocio, como una solución jurídica que mantiene la existencia del contrato y sus efectos, salvo en lo relativo a alguna o algunas de sus cláusulas (...) Pero es más común la manifestación de este fenómeno en los llamados contratos en mesa o de letra pequeña. Ello tiene su causa en la inserción dentro de tales condiciones generales de cláusulas abusivas por parte de las grandes empresas, que se encuentran frente al otro contratante en una posición prepotente. Pero es más común la manifestación de este fenómeno en los llamados contratos en mesa o de letra pequeña. Ello tiene su causa en la inserción dentro de tales condiciones generales de cláusulas abusivas por parte de las grandes empresas, que se encuentran frente al otro contratante en una posición prepotente. Pero es más común la manifestación de este fenómeno en los llamados contratos en mesa o de letra pequeña. Ello tiene su causa en la inserción dentro de tales condiciones generales de cláusulas abusivas por parte de las grandes empresas, que se encuentran frente al otro contratante en una posición prepotente”.

Deuseztasunarekin jarraituz horrela azaltzen du DE CASTRO Y BRAVO, Federico: *El negocio jurídico*, Civitas, 1985, 474. orr: “La llamada "teoría clásica" mantuvo la concepción de que la nulidad se produce "ipso iure", porque el negocio lleva en su propio organismo la causa de su muerte. Frente a ella se opondrá que la nulidad no nace de un defecto orgánico del acto o contrato, sino que siempre requiere el ejercicio de la "querela nullitatis". Se ha pretendido que la acción de anulación corresponde al titular del derecho cuyo ejercicio se vea obstaculizado por el negocio nulo (p. ej., a quien ejercita la acción reivindicatoria, en caso de venta nula), como un "derecho de crítica". La intervención judicial se considera imprescindible. y, además, se entiende que ella no opera sobre el acto mismo, sino sobre sus efectos, con la consecuencia de que "el acto nulo produce los mismos efectos que el acto regularmente celebrado, mientras el Juez no lo condene". Con lo que se ha podido llegar a la conclusión desconcertante de que en el Derecho moderno ha desaparecido la diferenciación entre la nulidad y la anulabilidad. La doctrina francesa dominante, influida por estas consideraciones, entiende que no hay nulidad de pleno derecho y que, en todo caso, para que opere la nulidad se requiere la declaración ("constatation") de la misma por el Juez. Esta dirección doctrinal supone un retroceso respecto al antiguo Derecho y está en evidente contradicción con la adoptada por la doctrina española. Parece poco afortunada, ya que llevaría al extremo de que los funcionarios se encontrasen obligados a considerar válidos actos y contratos visible y evidentemente nulos, en burla de lo mandado por las leyes y la moral”.

komunikabideetan oso ohikoak bihurtu ziren etxegabetze irudiak. Hala ere lehenengo epaiak kontsumitzaileen alde agertu ziren.

2.- Zoru klausulen inguruko jurisprudentiaren eboluzioa

Zoru klausulen ibilbide juridikoa ezagutzeko asmotan jurisprudentiaren ikuspuntutik, hiru une garrantzitsu kontuan hartu behar dira. Horretarako oinarritzat hiru sententzia hartuta denbora lerro bat finkatuko da. Hiru sententzia hauetako lehenak, hain zuzen ere AG-eko 2013koak, zoru klausulen inguruko lehenengo ondorioak aditzera ematen ditu¹⁰. Ondorio horien artean argi adierazi zen zoru klausulak nuluak eta kontsumitzaileen eskubideen kontrakoak zirela baldin eta eskakizun zehatz batzuk ematen baziren. Sententzia berak zehazten zuen bankuek soilik bueltatu beharko zituztela sententziaren epai irmotik aurrera kobratutako gehieneko diru kopuruak.

AG-eko 2015eko sententziaren aukeraketak ere oinarri sendo bat du. Izan ere nahiz eta 2013ko sententzian esandakoa indartzen den, ezberdintasun handi bat islatzen du aurrekoarekiko. Izan ere, geroago azalduko dudan arren, bi magistratuk haien boto partikularra aditzera eman zuten eta momentu hartara arte esandakoari kontra egin zioten. Beraz nahiz eta Auzitegi Gorenaren doktrina indartu zuen, kontsumitzaileen aldeko kutsu nabarmena agertu zuten magistratu haiek, atzeraeraginkortasunaren mugaketa ezabatu nahiaz¹¹.

Azkenik oinarri sendoa ematen digu Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko epaiak¹², izan ere, epai honen bidez 2015. urtean bi magistratuek aipatutako atzeraeraginkortasunaren mugaketa ezabatzea lortu baitzuten. Horrela kontsumitzailearen aldeko epai nagusia da, bertan argudiatu zelarik espainiar epaitegiek Europar Batasuneko irizpideen aurkako jarrera erakusten zutela. Hala kontsumitzaileei atak ireki zitzaizkien haien eskubideak modu eraginkorrean jorrazteko eta gainera bankuei haien dirua bueltatzeko eskubidea are oinarrituagoa izango zuten.

2.1.- Auzitegi Goreneko zibileko salako 2013ko Maiatzaren 9ko sententzia: gehiegikeriaz ordaindutako zenbatekoen atzeraeragin ezaren deklarazioa.

¹⁰Auzitegi Goreneko sententzia, zibileko sala, 2013ko maiatzaren 9a (RJ: STS 1916/2013).

¹¹Auzitegi Goreneko sententzia, zibileko sala, 2015eko martxoaren 25a (RJ: STS 1280/2015).

¹²Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko sententzia, 2016ko abenduaren 21a, (ECLI: EU:C:2016:980).

Ausbanc Consumo entitateak demanda kolektibo bat tarteratu zuen kontsumitzaileak babesteko asmoarekin, zeinak oinarritzat hartzen zuen bankuek erabiltzaileekin sinatutako kontratueta agertzen ziren baldintza orokorren behin betiko uztea. Demanda kolektibo hau *Banco Bilbao Vizcaya Argentaria SA*, *Caja de Ahorro de Galicia* eta *Cajamar Caja Rural*-en aurka aurkeztu zen. Demandan eskatzen zen abusuzkoak ziren klausulen nulitatea, zeintzuk hipoteka mailegu kontratueta txertatuta agertzen ziren. VALERO FERNÁNDEZ REYES-ek¹³ sententziari buruzko iruzkina egitean, “*que se solicita que se declare la nulidad, por tener el carácter de cláusulas abusivas, de las condiciones generales de la contratación ... novación de los mismos de las entidades demandadas*” azaltzen zuen. Beraz eskaeran bertan zoru klausulen deuseztasuna eskatzen da eta baita hipotekarekin zerikusia zuten nobazioen nulitatea, biak abusuzkoak zirela argudiatzen delarik.

Kontuan izan behar da kontratueta agertzen diren klausulak eta gehienbat interes tipoa aipatzen dutenak, nuluak izango liratekeela, abusuzkoak liratekeelako interes minimo bat txertatzen baitzuten. Interes minimo honek ez zuen inoiz behera egingo nahiz eta Euriborraren jaitsiera handia gertatu. Beraz gora egin zezakeen interesa daukagu, baina inoiz ere ez ezarritako minimo batetik behera egingo ez zuena. Gainera, klausula mota hauen transparentzia jarri zen kolokan baita ere auzi famatu honetan.

AG-ak epai irmoa eman eta gero hau da, nire aldetik, epaiaren azterketa sakona burutu ostean nire azterketa; Lehenik eta behin, modu orokorrean ulertu beharra zegoen 2013ko sententzia honetan, Auzitegi Gorenak adierazi zuela baliogabeak zirela gardentasun eza islatzen zuten zoru klausula guztiak. Sententzia honetan oinarritzko elementu bat hartu izan zen kontuan eta elementu hura kontsumitzaileei luzatutako informazioa eza zen. Izan ere, kontratuaren barnean bankuek kontsumitzaileei igorri beharreko informazioa txertatu beharra zegoen, azkenengo hauek zoru klausula zertan zetzan uler zezaten. Baina ez zen hala gertatzen. Bankuek klausula

¹³AG-ren sententziari buruz VALERO FERNANDEZ REYES, Ángel: “Comentario de la sentencia del Tribunal Supremo de 9 de Mayo de 2013”, *BOE Publicaciones*, 2013-2014, 154-155. orr: “La sentencia resuelve la demanda interpuesta por de la Asociación de Usuarios de Servicios Bancarios (AUSBANC CONSUMO), de acción colectiva de cesación de condiciones generales de la contratación en defensa de los intereses de los consumidores y usuarios, contra el Banco Bilbao Vizcaya Argentaria SA, la Caja de Ahorro de Galicia y la entidad Cajamar Caja Rural SCC en que se solicita que se declare la nulidad, por tener el carácter de cláusulas abusivas, de las condiciones generales de la contratación incluidas en diversos modelos de contratos de préstamo hipotecario o novación de los mismos de las entidades demandadas, consistentes en cláusulas de interés variable, celebrados con consumidores o usuarios, que establecen o un tipo mínimo de interés o un tipo mínimo de referencia”.

mota hauekin zerikusia zuen informazio oro edo zatirik handiena ezkutuan jartzen zuten edota kontsumitzailearentzat informazioa ulertezina bihurtzen zuen hizkera erabiltzen zuten.

Auzitegi Gorenak aurrekoa azaldu ostean aditzera eman zituen hurrengoko sei supostu zeintzuetan nulua izango zen klausula hau¹⁴. Beraz, AG-ren arabera **lehenengo** supostuak adierazten zuen obligazioen jabe izango diren alderdiek kontratu bat egiteko borondatea adierazten zutela zeinetan interes tipo aldakorra ezartzen zen. Erreferentziatzat erabiliko zuten indizea Euriborra izango zen eta indize horrek kontsumitzaileak ordaindu beharreko interesean zuzeneko eragina izango zuen. Euriborraren oszilazio edota fluktuazioek erabiltzaileak ordaindu beharreko interesean eragina izango zuten. **Bigarren** supostuak adierazten zuen, era argian, nulua izango zirela informazio nahikoa ematen ez zuten eta interes horrek kontratuan izan zitzakeen ondorioak aditzera ematen ez zituen klausula oro.

Hirugarren supostuan argi utzi zuen AG-ak finantza entitateek erabili ohi zuten iruzurra, zeinak inplikatzeko zoru klausulak derrigorrez joan behar zuela sabai klausula batekin. Horrela bata bestea gabe ezin ziratekeela joan adosten zen. Beraz, bi klausula mota horiek banaezinak zirela adierazten zen. **Laugarren** supostua kontratu askotan gertatu izan ohi den egoera zen. Honetan Auzitegi Gorenak adierazi zuen nulua izango zela ezkutuan txertatzen zen klausula oro. Izan ere, bankuek egoera bat sortzen zuten non bezeroak ezin zitzakeen identifikatu begien aurrean jartzen zitzaion gehiegizko informazioagatik. Kontsumitzaileari informazio asko ematen zitzaion honen arreta abusuzko klausuletatik aldentzeko. Beraz, klausula horiek kaltetuaren arretatik geratuko ziren, betiere ezkutuan.

Bosgarren supostuan bankuek burutu beharreko egoera bat planteatzen zen, oso gutxitan egiten zutena hain zuzen ere. Bankuek haien bezeroekin sinatutako kontratuaren simulazioak burutzeko betebeharra zuten. Honek suposatzen zuen, interes tipo aldakorrak denboran zehar

¹⁴Auzitegi Goreneko sententzia, zibileko sala, 2013ko maiatzaren 9a, 18. OJ, 296.parrafoan aurki ditzakegu sei supostuak. Bertan hala deskribatzen dira: “En el caso enjuiciado no procede la publicación de las cláusulas cuya utilización se prohíbe, dada su licitud intrínseca, ya que el cese se basa en: **a)** La creación de la apariencia de un contrato de préstamo a interés variable en el que las oscilaciones a la baja del índice de referencia, repercutirán en una disminución del precio del dinero. **b)** La falta de información suficiente de que se trata de un elemento definitorio del objeto principal del contrato. **c)** La creación de la apariencia de que el suelo tiene como contraprestación inescindible la fijación de un techo. **d)** Su ubicación entre una abrumadora cantidad de datos entre los que quedan enmascaradas y que diluyen la atención del consumidor en el caso de las utilizadas por el BBVA. **e)** La ausencia de simulaciones de escenarios diversos, relacionados con el comportamiento razonablemente previsible del tipo de interés en el momento de contratar, en fase precontractual. **f)** Inexistencia de advertencia previa clara y comprensible sobre el coste comparativo con otros productos de la propia entidad”.

izan zitzakeen oszilazioei buruzko simulazioak egin behar zituela bankuak bere bezeroarekin eta betiere simulazio horiek adierazten zutena azalduz kontsumitzaile edo bezeroari. Lehenago esan bezala, bankuek oso gutxitan egiten zuten halako simulaziorik. **Seigarren** supostuak azaltzen zuen nuluak izango zirela halako klausulak baldin eta produktua eskaintzen zuen entitateak hauen existentziaren inolako berririk ematen ez bazuen. Beraz ingelesez erabiltzen den terminoa barnebiltzen zuen supostu honek. Hain zuzen ere “lack of information” edo euskaraz, informazio edo aurreabisi falta.

Auzitegi Gorenak nulitate supostu hauek zeintzuk ziren laburki azaldu ostean, argitara atera zuen zuen aztertutako zoru klausulen gardentasun eza¹⁵ zertan oinarritzen zen. Gardentasun eza zertan zetzan azaltzeko bost puntutan laburbildu zuen. Honetan oinarritu zuen AG-ak gardentasun eza:

1. Kontratuaren objektua definitzen zuen oinarritzko elementu bat zela azaltzen zuen informazio eza edota informazio eskasa ematea kontsumitzaileari.
2. Zoru klausula Sabai klausularekin batera txertatzea eta horiekiko kontraprestazioa balitz bezala adieraztea.
3. Ez dira egiten kontsumitzailearekin batera simulazioak. Simulazio hauen helburua delarik kontsumitzaileak ulertzea zer suposatu dezakeen Euriborraren jaitsiera edota igoera handi batek interes tipoa. Guzti hau kontratua sortzen den momentuan.
4. Ez dago inolako konparaketarik finantza entitateak eskaintzen dituen bestelako produktuen eta bezeroari eskaintzen zaionaren artean.

¹⁵Auzitegi Goreneko sententzia, zibileko sala, 2013ko maiatzaren 9a, 13.OJ, 225. parrafoan aurki ditzakegu gardentasun eza oinarritzeko erabilitako 5 puntuak: “Lo expuesto lleva a concluir que las cláusulas analizadas superan el control de transparencia a efectos de su inclusión como condición general en los contratos... En definitiva, las cláusulas analizadas, no son transparentes ya que: **a)** Falta información suficientemente clara de que se trata de un elemento definitorio del objeto principal del contrato.**b)** Se insertan de forma conjunta con las cláusulas techo y como aparente contraprestación de las mismas.**c)** No existen simulaciones de escenarios diversos relacionados con el comportamiento razonablemente previsible del tipo de interés en el momento de contratar.**d)** No hay información previa clara y comprensible sobre el coste comparativo con otras modalidades de préstamo de la propia entidad -caso de existir- o advertencia de que al concreto perfil de cliente no se le ofertan las mismas.**e)** En el caso de las utilizadas por el BBVA, se ubican entre una abrumadora cantidad de datos entre los que quedan enmascaradas y que diluyen la atención del consumidor”

5. Bezeroari ematen zaion informazioa guztia dela eta, klausula hauek ezkutuan geratzen dira eta beraz ezinezkoa egiten da kontsumitzailearentzat horien identifikazioa egitea.

Honi guztiari gehitu behar zaio, AG-ak 2013ko sententzia honetan aditzera eman zuena: “ *La nulidad de las cláusulas suelo no comporta la nulidad de los contratos en los que se insertan, ya que la declaración de nulidad de alguna de sus cláusulas no supone la imposibilidad de su subsistencia* ”¹⁶. Honek zer suposatzen duen jakiteko, funtsezkoa da jakitea klausula bat nulua izateak ez duela ekartzen kontratuaren iraungitzea. Beraz, kontratuak indarrean jarraituko dute eta klausula bat nulu dela adierazteak ez du kontratu horren deuseztasuna suposatuko. Gainera, AG-ak zera esan zuen: “ *Consecuentemente con lo expuesto, procede declarar la irretroactividad de la presente sentencia, de tal forma que la nulidad de las cláusulas no afectará a las situaciones definitivamente decididas por resoluciones judiciales con fuerza de cosa juzgada ni a los pagos ya efectuados en la fecha de publicación de esta sentencia...* ”¹⁷. Zoru klausula abusuzkoa dela adierazten denean epai irmo bidez, interes aldakorreko mailegu kontratu batean zoru klausula hori nulua izango zen eta kaltetua izan zen hirugarrenak, bai fisikoa izan zein juridikoa, klausula horregatik ordaindutako gehienezko kantitateak erreklamatzeko eskubidea izango zuen, baina, 2013ko maiatzaren 9tik aurrera finantza entitateek kobratutakoak bakarrik¹⁸. HERNÁNDEZ GUARCH abokatuak sententzia honi buruzko kritika gogorra egiten du alde batetik azpimarratuz Auzitegi Goreneko efikazia eza eta

¹⁶Auzitegi Goreneko sententzia, zibileko sala, 2013ko maiatzaren 9a, 16. OJ, 275. parrafoan adierazten da.

¹⁷Auzitegi Goreneko sententzia, zibileko sala, 2013ko maiatzaren 9a, 17. OJ, 294. parrafoan adierazten da.

¹⁸Abokatu honek bere sententziari buruzko iritzia horrela azaltzen du HERNÁNDEZ GUARCH, Carlos: “La sorpresiva declaración de irretroactividad de las cantidades abonadas”, *Revista CESCO de Derecho de Consumo*, 2013, 134-169. orr: “La Sentencia que se comenta es aún más sorprendente por cuanto el TS ha determinado una irretroactividad absolutamente novedosa y extraordinaria que jamás se había decretado con anterioridad dado que ha extendido los efectos de la irretroactividad a las cantidades pagadas a la fecha de la Sentencia aunque estuvieran siendo objeto de reclamación judicial en el momento de la sentencia lo que es algo que el TC jamás ha llegado ni tan siquiera a plantearse. El TS pretendiendo evitar incluso que las entidades tengan que pagar por demandas individuales o colectivas ya interpuestas en el momento de la Sentencia ha declarado que dichas cantidades pagadas, en procedimientos iniciados con anterioridad al 9 de mayo tampoco procede su devolución en una decisión que es, sin lugar a dudas, calificable de aberrante (...) Un ejemplo de lo profundamente injusta e ilegal de la Sentencia es que la entidad BBVA una de las condenadas que alegaban la imposibilidad de devolver el dinero que han detraído ilícitamente de sus clientes por el contrario en su página web informa ufana y orgullosamente que ha repartido 12.855 millones de euros en dividendos distribuidos en los últimos ejercicios. ¿Cómo se puede tener la osadía de argumentar sin sonrojarse, que devolver las cantidades percibidas de manera ilícita por una entidad privada que ha remunerado a sus accionistas en la mayor recesión de la Historia con 12.855 millones de euros supone un perjuicio para el sistema económico en su conjunto?”.

beste alde batetik *BBVA* bezalako bankuek kontsumitzaileei kobratutako zenbatekoak ez bueltatzeko argudiaketari buruz.

VALERO FERNÁNDEZ-REYES-ek¹⁹, sententzia honi buruzko iruzkina egin zuenean, sententziaren laburpen gisa hau azaldu zuen 2013ko maiatzaren 9ko sententzia honetan Auzitegi Goreneko Sala Zibilak zoru klausulen inguruan sortutako eztabaidari amaiera eman nahi ziola. Beraz, Sala Zibilak erabaki zuen hipoteka maileguetan txertatuta zegoen zoru klausula abusuzkoa zela eta hori dela medio, nuluak zirela gardentasun faltagatik. Azkenik klausula hauek hipoteka maileguetako kontratuetatik ezabatzea erabaki zen. Honekin batera aipatzekoa izan zen sententziaren atzeraeragina, zeinen bitartez, aztertutako klausula nuluek ez zuten eraginik izango epai bidez erabakitako egoera judizialei ezta sententziaren argitalpen egunean jada egindako ordainketei.

Sententzia hau gehiago aztertuz uler dezakeguna da, bankuek klausula hauek kontraturen baitan txertatzerakoan, aditzera ematen zutela maileguaren interes tipoa aldatuko zela, goranzko joeraz edota beheranzko joeraz Euriborraren²⁰ edota beste indize bat erreferentziatzat

¹⁹AG-ko 2013ko sententziaren iruzkina VALERO FERNÁNDEZ REYES, Ángel: “Comentario de la...”, zit., 153. orr: “La Sentencia de la Sala Civil del Tribunal Supremo de 9 de mayo de 2013 intenta poner fin a la controversia surgida en los últimos años acerca de la validez y carácter abusivo de las denominadas. cláusulas suelo de los préstamos hipotecarios con consumidores...En los supuestos concretos que se enjuician, el Tribunal Supremo considera que las cláusulas suelo tienen carácter abusivo y, por tanto, son nulas, únicamente por falta de transparencia, se ordena su exclusión de los contratos de préstamo hipotecario de las entidades financieras demandadas y se declara expresamente la irretroactividad de la sentencia, de tal manera que la nulidad de las cláusulas analizadas no afectará a las situaciones definitivamente decididas por resoluciones judiciales ni a los pagos ya efectuados en la fecha de su publicación”.

²⁰Euriborrari buruz GARCIA ARANDA, Juan Francisco: “Euribor”, *eXtoikos*, 2011, 121-122. orr: “**1. ¿Qué es el Euríbor?** El Euríbor es el tipo de interés al que las entidades financieras se prestan dinero entre sí en el mercado interbancario de la zona euro. Se calcula y se publica por la Federación Bancaria Europea. Se obtiene mediante el cálculo de la media aritmética de los tipos de interés de oferta diarios de las principales entidades de la zona euro. Se publica diariamente para distintos plazos de vencimiento, que van desde una semana hasta un año. **2. ¿Para qué se utiliza?** ...es el índice utilizado como principal referencia para la fijación del tipo de interés de los préstamos hipotecarios concedidos por las entidades de crédito españolas... El Euríbor a un año se utiliza desde el 1 de enero de 2000... **4. Evolución histórica** En el gráfico 2 mostramos la evolución del Euríbor desde su inicio, en enero de 2000. Durante los cinco meses comprendidos entre junio y octubre de 2008 se alcanzaron los tipos más altos, con un pico en julio de 2008 del 5,39 por ciento.”

hartzen zelarrik. Klausula mota hau adierazten zen momentuan, betiere finantza arloko hizkera berezia erabiltzen zen eta hizkera honen barnean halako esaldiak agertu ohi dira: “*En cualquier caso, el tipo de interés nunca será inferior al X %*”. Honek beraz aditzera ematen du X delakoak ez zuela inoiz baheranzko joerarik izango nahiz eta erreferentziazko indizea eta diferentziala gehituta lortutako ehuneko baxuagoa izan ²¹.

2.2.- Auzitegi Goreneko zibileko salako 2015eko Martxoaren 25eko sententzia: “*Ex tunc*” egoerara bueltatu bai ala ez?

2015. urteko sententzia honen egitateetan alderdi bi aurki ditzakegu²². Alde batetik bi pertsona fisiko daude hipoteka mailegu bat zutenak, interes tipoa aldakorra txertatuta zutelarik hipoteka

Gráfico 2: Evolución del Euríbor a 1 año (Enero 2000-Enero 2011)



Iturria: Europako Banku Zentrala (BCE)

²¹Eredu praktikoa baten bidez azalduz CÁRDENAS FERNÁNDEZ, María: “Cláusulas abusivas”, zit., 112. orr: Hipótesis: “Un sujeto X, en 2005, se dirige al banco La Caixa para pedir un préstamo hipotecario, y firma el mismo día una hipoteca de treinta años de duración. Supongamos que ese año el Euribor se encontraba en un 3,5%, y que a este se le suma ría un tipo de interés de las cláusulas del 1,5%, por lo que resultaría interés total del 5% En 2006 sube el Euribor, y la cantidad final sigue aumentando. Suponiendo que sube el Euribor a un 3,9%, sumándole el tipo de interés del 1,5% (que es fijo), se establece una suma total del 5,4%. Así ocurre sucesivamente, año tras año, hasta llegar a 2014. En 2014, el Euribor ha bajado a un 0,5 %, y el tipo de interés sigue siendo el mismo (1,5 %). Por tanto, lo correcto sería pagar un interés total del 2% Pero ¿cuál es el problema? Pues que el sujeto X tenía incorporada en su contrato una cláusula suelo con un mínimo del 3%, por lo que nunca podría pagar menos de esa cantidad. Ese uno por ciento de diferencia entre lo que debería pagar y lo que realmente paga, por tener la cláusula suelo en su préstamo hipotecario, se considera abusivo. También puede tener una cláusula techo, que sería el máximo interés a pagar que supongamos que es del 12%”.

²²Ildo horretatik NÁJERA PASCUAL, Abraham: “Comentario de la sentencia del tribunal supremo de 25 de marzo de 2015 (1280/2015)”, *BOE*, 2015, 305-315. orr: “**1. Resumen de los hechos** Dos personas físicas, titulares de un préstamo hipotecario a interés variable suscrito con Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. (BBVA), presentaron demanda de juicio ordinario contra esta entidad en el Juzgado de lo Mercantil número 1 de Vitoria-Gasteiz, en ejercicio de una acción declarativa de nulidad de condiciones generales de la contratación y de una acción de devolución de cantidad. En dicha demanda se solicitaba la declaración de nulidad de la cláusula suelo inserta en el referido préstamo, por considerarla abusiva, así como la condena a la entidad financiera a eliminar

maileguaren baitan. Kontratua *Banco Bilbao Vizcaya Argentaria* finantza entitatearekin sortzea erabaki zen eta pertsona fisiko hauek epaiketa arrunteko demanda tarteratu zuten Gasteizeko epaitegietan. Kasu honetan zoru klausularen gehiegikeria zela eta, honen ezabatzea eskatu zuten eta gainera bankuek gehiegikeriaz zoru klausula zela eta kobratutako guztia bueltatzea eskatu zuten baita.

AG-ko 2013ko Maiatzaren 9ko sententziaren ostean, eztabaida handia eta polemika handia sortu zuen ordaindutakoa bueltatzearen atzeraeraginkortasunak edota atzeraeraginkortasun ezak. Izan ere mailegu-hartzaileak gehiegizko ordainketak egin zituen, klausula horiek nuluak zirela kontuan hartuz. Horregatik iritzi ezberdin asko gailendu ziren Probintzia Auzitegi ezberdinetan eta hori dela medio ez zegoen inolako doktrina finkaturik.

2015ko sententzia honek beraz eragin handia izan zuen zoru klausulen gaiaren baitan. Izan ere, doktrina finkatu zuen. Finkatutako doktrina hartan adierazten zen kaltetuek, bankuek gehiegikeriaz kobratutako kantitateak berreskuratzeko eskubidea izango zutela, betiere, 2013ko sententzia hartan emandako epai irmotik aurrera. Hala ere, bi magistratuk boto partikularra eman zuten, azalduz haien ustetan kaltetuek kantitate horiek berreskuratzeko eskubidea izan beharko luketela baina ez 2013ko sententzia hartatik aurrera, baizik eta kontratuaren perfekzioa edo sorrera eman zen unetik. Beraz sententziatik era argian ulertu behar zena, doktrinaren finkatze honek “*ex tunc*” mugatu nahi izan zituela nulitatearen ondorioak²³. Nahiz eta “*ex tunc*” egoerara bueltatzea lortu ez, oso deigarria izan zen

dicha condición general de la contratación de sus contratos (...). **2. Soluciones dadas en primera instancia** ...el Juzgado de lo Mercantil dictó sentencia el 2 de julio de 2013 estimando la demanda y declarando que la cláusula suelo era una verdadera condición general de la contratación y además era abusiva. **5.3. El voto particular** El Excmo. Sr. Magistrado D. Francisco Javier Orduña Moreno formuló un voto particular a la sentencia plenaria analizada al que se adhirió el Excmo. Sr. Magistrado D. Xavier O’Callaghan Muñoz, discrepando del fallo y considerando que el recurso debió ser desestimado, confirmando la sentencia de la Audiencia y la obligación de BBVA de restituir todas las cantidades satisfechas en aplicación de la cláusula suelo...También consideran que existe un error de concepto, arrastrado desde la sentencia de 2013 por el «prematureo contexto metodológico» y «la urgencia y novedad que acompañó su resolución», al mezclar el fenómeno de la retroactividad –para el voto particular limitado al ámbito normativo–, con el de la ineficacia derivada de las cláusulas abusivas. Y que dicha indebida asimilación hizo que la sentencia se «pronunciara con un fundamento de retroactividad, respecto de los pagos ya efectuados en la fecha de publicación de la misma (...) además de vulnerar el derecho a la tutela judicial efectiva de los consumidores, «que sin ser parte del proceso judicial establecido y, por tanto, sin atención a las circunstancias concretas de su relación contractual, ven vulnerada su legítima pretensión de impugnación de la citada cláusula y su derecho a la devolución íntegra de las cantidades satisfechas».

²³BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo: “Artículo 1303”, *Comentarios al Código Civil*, Thomson Reuters Aranzadi, 2015, 1780. orr .

Honen harira, PUJOL CAPILLA, Purificación: “La retroactividad de toda cláusula declarada nula”, *Revista de Derecho, Empresa y Sociedad (REDS)*, 2015, 95-102. orr: “Sin embargo, a raíz de dicha resolución son muchas

magistratuek haien boto partikularrean azaldu zutena eta honi loturik, BERCOVITZEK ere azaldu zuten zertan zetzan “*ex tunc*” egoerara bueltatzeak.

Zer den ulertzeko, KZ-ra joan beharra dago, hain zuzen ere 1303. artikulura²⁴, honek erregulatzen baitu “*restitutio in integrum*” figura. Autore honek azaltzen du, obligazio bat nulua deklaratzeko den momentuan aldeek bata besteari itzuli beharko diote emandakoa edota ordaindutakoa. Hala, *ex tunc* egoerara lortzea ahaleginduko dira. Egoera honek suposatzen du aldeak negozio juridikoa gauzatu baino aurreko egoerara bueltatzen dira. Autore honek zera azaltzen du: “*Su finalidad es conseguir que las partes afectadas vuelvan a tener la situación personal y patrimonial anterior al evento invalidador*”²⁵.

Bi magistratu hauek Francisco Javier ORDUÑA MORENO eta Xavier O' CALLAGHAN MUÑOZ izan ziren eta haiek formulatzen duten boto partikularrean argi adierazi zuten 8. parrafoan²⁶ kasazio errekurtsua tarteratu zenean, hartan adierazi beharra zegoela klausulen gardentasun eta gainera bankuek kobratutako gehienezko kantitateak kontratuaren formalizazioa eman zenetik itzuli beharko zirela. Hala adierazi zuten magistratuek 8. parrafoan nik laburki azaldutakoa: “*En virtud de todo lo razonado anteriormente, el recurso de casación debió ser igualmente desestimado, con la consiguiente confirmación tanto de la declaración de abusividad por falta de transparencia real de las cláusulas objeto de examen, como del pleno efecto devolutivo de las cantidades pagadas desde la perfección o celebración del contrato, dado que la nulidad de pleno derecho de la cláusula en cuestión determinó la carencia de título alguno que justifique la retención de las mismas y su atribución al predisponente*”.

las sentencias de Primera Instancia que, a mi juicio de forma errónea, aplican la irretroactividad a partir de la fecha de la sentencia del TS. Si cualquier particular entabla un juicio ejercitando la nulidad de “su” cláusula suelo y ésta se estima ello debe traducirse en el efecto devolutivo de todas las cantidades percibidas por la aplicación concreta de la cláusula declarada nula. Llama la atención que el verdadero motivo que señala la resolución para limitar el efecto retroactivo de la nulidad de la cláusula sea: “el posible riesgo de trastornos graves en las entidades financieras”, motivo que consideramos jurídicamente insostenible ya que el control de transparencia y la razón de la ineficacia derivada por el ejercicio de la acción individual de impugnación merece una fundamentación jurídica acorde a la finalidad perseguida por la norma y en el marco de aplicación de los Principios generales del derecho”.

²⁴KZ, 1303. art: “*Behin betebeharraren deuseztasuna adierazi eta gero, kontratugileek elkarri itzuli behar dizkiote kontratuaren objektu diren gauzak, euren fruituekin batera, eta prezioa, horren korrituekin batera, hurrengo artikuluek xedatzen dutenari kalterik egin gabe*”.

²⁵BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo: “Artículo 1303”, zit., 1781. orr.

²⁶Auzitegi Goreneko sententzia, zibileko sala, 2015ko martxoaren 25a, boto partikularreko (Francisco Javier ORDUÑA MORENO eta Xavier O' CALLAGHAN MUÑOZ) 8.parrafoan adierazten da.

Beraz, nahiz eta ikus genezakeen sententzia honetan Auzitegi Gorena osatzen duten magistratuen artean egoera aldatzeko nahi bat, sententzia honek soilik aurrekoaren indartze bat suposatzen du. Beraz, nahiz eta aurrekoa indartu, ikus daiteke magistratuek nola boto partikularraren bitartez haien diskordantzia adierazten duten eta nola haien ustetan “restitutio in integrum” bat gauzatu beharra zegoen, hala “*ex tunc*” egoerara heltzeko²⁷. Hobe esanda, negozio juridikoa gauzatu baino lehenagoko egoera ekonomikora edota pertsonalera.

2.3.- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2016ko Abenduaren 21ean emandako sententzia: atzeraeraginaren mugaketaren ezabatzea.

2016ko Abenduaren 21an Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak kontsumitzailearen aldeko jarrera azaldu zuen eta 2015an Auzitegi Gorenak emandako epaiaren atzeraeraginaren mugaketa hura baztertu egin zuen. Doktrinak ikuspuntu kontrajarriak zituen, zoru klausulek sortutako gehiegizko ordainketa horiek noiztik aurrera erreklamatzeko aldera. Izan ere, aurretik esan bezala 2015 sententzia hark erabaki zuen soilik erreklamatu ahal izango zirela 2013ko epai irmotik aurrera bankuek gehiegikeriaz kobratutako diru kantitateak.

Ikuspuntu berritzailea aurkeztu zuen beraz EBJA-k, atzeraeraginaren mugaketa hura ezabatu baitzuen eta erabaki zuen, laburbilduz, negozio juridikoaren sorreratik eta beraz, zoru klausula horien sorrera eman zen unetik bueltatu beharko zituztela bankuek kontsumitzaileei kobratutako kantitateak. Honek aditzera ematen zuen, mailegu-hartzaileek erreklamatu

²⁷Ildo horretatik zera ematen du aditzera REYES LÓPEZ, María José: “Comentario a la sts (sala de lo civil) de 25 de marzo de 2015”, *Revista del OCCA*, 2015, 1-19. orr: “Una de las cuestiones que el legislador español no abordó en materia de protección al consumidor cuando contempló por vez primera las acciones colectivas en la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil, para que fueran ejercitadas en defensa de los intereses de los consumidores, fue proveer de las correspondientes reglas de coordinación entre las acciones individuales y colectivas con el fin de poder resolver situaciones como la que ha dado lugar al voto particular formulada en la STS de 25 de marzo de 2015. Plantea este voto particular la distinta naturaleza de las acciones colectivas y de las individuales, y el efecto de cosa juzgada, así como de las diferentes pretensiones que se procura con cada una de ellas, al efecto de, con carácter posterior a la declaración de no transparencia de una cláusula de las denominadas suelo, poder solicitar la plena restitutio in integrum como consecuencia natural de la declaración de ineficacia (...) lejos de lo que se pensaba, flaco favor hace al consumidor, que no podrá comprender cuál es la razón para justificar que una cláusula que se tiene por no puesta en el contrato, no sólo le genera gastos sino que además legitima a la entidad bancaria para no devolverle las cantidades recibidas con anterioridad al 9 de mayo de 2013, justificando dicha decisión en unos motivos de orden público económico, que creo que, además de no ser coincidentes, en sentido contrario al criterio mantenido, ha propiciado la promulgación de normas de protección a los más debilitados frente a estos entes”.

zitzaketela, hipoteka maileguaren kontratuaren eraketa ematen zen unetik aurrerako, gehiegikeriaz bankuek kobratu zituzten diruzko kantitateak²⁸.

EBJA-k emandako epai hau guztiz kontrajartzen da espainiar ordenamendu juridikoan eman ziren epaiekin. Aurretiaz azaldu bezala hautsi egin zen atzeraeraginkortasunaren mugaketa hura, zeinak erreklamazioak 2013ko maiatzaren 9ra mugatu zituen. Sententzia honek beraz kontsumitzaileei aukera eman zien kontratuaren sorreratik ordaindutako kantitateak erreklamatzera²⁹. Auzitegi honen argudiaketan sarturik, honela azaldu zen: *“En tales circunstancias, dado que para resolver los litigios principales los órganos jurisdiccionales remitentes están vinculados por la interpretación del Derecho de la Unión que lleva a cabo el Tribunal de Justicia, dichos órganos jurisdiccionales deberán abstenerse de aplicar, en el ejercicio de su propia autoridad, la limitación de los efectos en el tiempo que el Tribunal Supremo acordó en la sentencia de 9 de mayo de 2013, puesto que tal limitación no resulta compatible con el Derecho de la Unión”*³⁰.

Hurrengoko hitzetan ere ikus genezakeen nola EBJA-k aditzera ematen zuen urratu egiten zirela kontsumitzaileen eskubideak 2013an adierazitako atzeraeraginaren mugaketarekin. Honako hitz hauekin EBJA-k bere epaiaren gakoak islatu zituen: *“Pues bien, la limitación en*

²⁸Hau adierazten du CÁMARA LAPUENTE, Sergio: “Un examen crítico de la stjue de 21 diciembre 2016: nulidad retroactiva sí, falta de transparencia “abusiva” de las cláusulas suelo no”, *Cuadernos de Derecho Transnacional*, 2017, 383-395. orr: “En consecuencia, “una jurisprudencia nacional que limita en el tiempo los efectos restitutorios vinculados a la declaración del carácter abusivo” se opone dicho precepto: el consumidor tiene “derecho a obtener la restitución íntegra de las cantidades que haya abonado indebidamente a la entidad bancaria”. Aunque los términos transcritos hablan por sí mismos, podría añadirse, con otra dicción: la nulidad (española) de pleno derecho con ineficacia ex tunc establecida en el art. 1303 CC es, también, como mínimo, la categoría de ineficacia contractual (europea) que encaja mejor (...) los Estados miembros no pueden rebajar ese mínimo protector”.

²⁹Ildo honetatik hala dio GÓMEZ GÁLLIGO, Javier: “Comentarios a la sentencia del tribunal de justicia de la unión europea de 21 de diciembre de 2016”, *Cuadernos de Derecho Transnacional*, 2017, 430-443.orr: “Frente a ello la sentencia del TJUE ahora comentada, de fecha 21 de diciembre de 2016 sostiene la eficacia ex tunc o retroactiva de la nulidad. Y considera que no debió aplicarse el mismo criterio de limitación de los efectos por razón de seguridad jurídica que el propio TJUE había sostenido para las acciones colectivas, pues se trataba de una acción de nulidad individual. Y aunque admite que el tema de la prescripción es un tema de Derecho procesal interno, considera que no puede interpretarse contra- viniendo el principio de equivalencia de la Unión Europea (...) En efecto, en la sentencia n.º 139/2015, de 25 de marzo de 2015 el Tribunal Supremo confirmó la limitación de los efectos retroactivos de la declaración de nulidad de una cláusula suelo (...) Y esto es lo que la Sentencia del TJUE de 21 de Diciembre de 2016 no acepta, pese a que en principio era la posición sostenida por el Abogado General ante el TJUE11. Y da la razón al voto particular del Magistrado Javier Orduña que en la sentencia de 25 de Marzo de 2015 había sostenido que en el caso de ejercicio de las acciones individuales, los criterios que resultan aplicables no dan otra alternativa posible que no sea la determinada del efecto devolutivo de las cantidades ya pagadas con carácter “ex tunc”, esto es, desde el momento de la perfección del contrato predispuerto”.

³⁰Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko sententzia, 2016ko Abenduaren 21a. KP, 74.parrafoa.

el tiempo de los efectos jurídicos derivados de la declaración de nulidad de las cláusulas suelo, que el Tribunal Supremo acordó en la sentencia de 9 de mayo de 2013, equivale a privar con carácter general a todo consumidor que haya celebrado antes de aquella fecha un contrato de préstamo hipotecario que contenga una cláusula de ese tipo del derecho a obtener la restitución íntegra de las cantidades que haya abonado indebidamente a la entidad bancaria sobre la base de la cláusula suelo durante el período anterior al 9 de mayo de 2013”³¹.

Uler genezakeen argudiaketa horretatik beraz, estatu mailako jurisprudentziak kaltetu egiten zituela kontsumitzaileen interesak eta haien babesa kolokan uzten zuela. Atzeraeraginkortasunaren mugaketak, zeinak Espainian jurisprudentzia aldetik aurrekari bat finkatu zuen, babesgabezia larrian uzten zituen kontsumitzaileak eta beraz ez zen tresna juridiko eraginkorra izan abusuzko klausulen erabilera behin betiko alde batera uzteko³².

3.- Kontsumitzaileen epaiketaz kanpoko erreklamazioa: 1/2017 Errege Dekretua

Nahiz eta epaiek kontsumitzaileenganako jarrera ezkorra izan, abusuzko klausulak ezabatze bidea ireki zitzaien kaltetuei³³, hain zuzen ere Urtarrilaren 20ko 1/2017 Errege Dekretuaren

³¹Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko sententzia, 2016ko abenduaren 21a. KP, 72.parrafoa.

³²Autore honen iritzari erreparatuta CÁMARA LAPUENTE, Sergio: “Un examen crítico..”, zit., 395. orr: “El Tribunal Supremo tendrá que cambiar su jurisprudencia y ajustar sus argumentos, presumiblemente, a la abusividad ponderada que, según el TJUE, deriva del control de transparencia, incluida, por supuesto, la retroactividad plena de la ineficacia. Posiblemente sería mejor y cumpliría tanto el principio de equivalencia y como el de efectividad llegar a la misma vía de la ineficacia ex tunc mediante la no incorporación de la cláusula suelo que no se redactó de manera clara y comprensible, entendiendo igualmente la comprensibilidad en un sentido amplio, material y no meramente literal o formal; aunque tanto la STJUE 21 diciembre 2016 (Gutiérrez Naranjo) como la STUE 26 enero 2016 (Banco Primus), al perfilar novedosamente el control de transparencia y establecer que esto corresponde al TJUE y no a los Estados Miembros (con la grave sospecha de actuar ultra vires, como se sostiene en este comentario), han introducido una dificultad sobrevenida a ese planteamiento, no sólo en España, sino también en otros Estados miembros”.

³³Errege dekretuari buruzko iruzkin sakona IBÁÑEZ JIMÉNEZ, Javier: “Comentario al Real Decreto-ley 1/2017, de 20 de enero, de medidas urgentes de protección de consumidores en materia de cláusulas suelo”, *Derecho global Estudios sobre derecho y justicia*, 2017, 167-170.orr: “A fin de adecuarse al criterio europeo, el Gobierno español acaba de aprobar el Real Decreto-ley 1/2017, de 20 de enero, de medidas urgentes de protección de consumidores en materia de cláusulas suelo, que regula un sistema extrajudicial para pactar la devolución al cliente del dinero ya cobrado por el banco al aplicar el “suelo”: en España, decenas de miles de millones de euros. Así, bancos y clientes damnificados puedan acordar tiempo y cantidad a devolver, lo que ha desatado las críticas de las asociaciones de consumidores (hay un millón y medio de afectados en España), que desconfían del posible abuso de los bancos al seleccionar clientes para negociar en esa vía extrajudicial (...) los afectados por una cláusula suelo pueden reclamar en su banco. Este estudiará las reclamaciones y decidirá a qué clientes cobró indebidamente el interés mínimo o “suelo”, superior al que habría resultado del préstamo variable sin aplicar dicha cláusula. A partir de junio de 2017 los bancos enviarán a sus clientes el cálculo de la devolución propuesta, plazo que aliviará

bitartez³⁴. Kontsumitzaileek bankuak gehiegikeriaz kobratutako interesei zegokien diru kopurua berreskuratzeko mekanismoa aurreikusten zuen, zeinetan kontsumitzaileek ez zuten Epaitegi nahiz auzitegi-tara joan beharrik legez zegokien dirua erreklamatzera³⁵. Gainera bankuek gehienez hiru hilabeteko epea izango zuten dirua bueltatzeko. Prozesuak aurrera egiteko, kontsumitzaile kaltetuak eskaera bat egin beharko zion bankuari eta bankuak kaltetuari gehiegikeriaz kobratutako kantitate horietaz berri emango zion. Hori hala izanik, bankuak bi aukera ematen zizkion kaltetuari: kobratutako diru kopurua eskudirutan ematea edota bestelako konpentsazioa ematea.

Judizioz kanpoko erreklamazioa bideratze aldera ED-ko 3. artikulua judizioz kanpoko erreklamazioa bideratzeko sistema bat ezartzen du, zeinen bidez, kontsumitzaileak finantza entitateari boluntarioki eskaera bat egin diezaiokeen³⁶. Finantza entitateek bere bezeroen eskaera aztertzeko sistema bat ezarri behar zuten, betiere demanda tarteratu baino lehen. Erreklamazio sistema hori bermatzen zela ziurtatzeko, Ekonomia Ministeritzak finantza

la congestión actual de los tribunales para atender este tipo de demandas. Con todo, el perjudicado puede, al amparo del Real-Decreto Ley comentado, proseguir las demandas judiciales que hubiere iniciado, o incoar otras nuevas si no llega a un consenso con el banco”.

³⁴1/2017 Errege Dekretua, Kontsumitzaileen babeserako premiazko neurriak ezartzen dituen zoru klausulen materialian. Hitzaurrea: “el presente real decreto-ley pretende avanzar en las medidas dirigidas a la protección a los consumidores estableciendo un cauce que les facilite la posibilidad de llegar a acuerdos con las entidades de crédito con las que tienen suscrito un contrato de préstamo o crédito con garantía hipotecaria que solucionen las controversias que se pudieran suscitar como consecuencia de los últimos pronunciamientos judiciales en materia de cláusulas suelo y, en particular, la sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea de 21 de diciembre de 2016”.

³⁵Cuatrecasas-ek dekretuari buruzko azalpen argia eman zuen. Bertan azaltzen da zein pertsonen izango duten kontsumitzaile rola eta zeintzuk geratuko diren erreklamazioetatik kanpo. Azaltzen da baita ere zein izango den entitateek izango duten funtzionamendua: “Aprobación del real decreto-ley 1/2017, de 20 de enero, de medidas urgentes de protección de consumidores en materia de cláusulas suelo y régimen fiscal aplicable en el impuesto sobre la renta de las personas físicas a la devolución de cantidades derivadas de acuerdos celebrados con entidades financieras o del cumplimiento de sentencias o laudos arbitrales relativos a cláusulas suelo”, 2017, 1-11.orr: “A estos efectos, se considera consumidor cualquier persona física que reúna los requisitos previstos en el artículo 3 del texto refundido de la Ley General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre. Por tanto, quedan fuera del ámbito de aplicación del RDL 1/2017 las personas jurídicas, así como las personas físicas que actúen en el ejercicio de una actividad comercial, empresarial o profesional (...) El procedimiento extrajudicial es obligatorio para las entidades de crédito y voluntario para el consumidor, y las entidades están obligadas a garantizar que todos los consumidores que tengan cláusulas suelo conozcan dicho procedimiento. En este sentido, se concede a las entidades de crédito el plazo de un mes desde la entrada en vigor del RDL 1/2017 para adoptar las medidas necesarias previstas en él y articular procedimientos ágiles que les permitan resolver con rapidez las reclamaciones recibidas. En este sentido, las entidades deberán disponer de un departamento o servicio especializado para atender estas reclamaciones, y deberán poner a disposición de sus clientes, en todas sus oficinas abiertas al público y en su página web determinada información”.

³⁶Zoru klausularen epaiketaz kanpoko erreklamazioa bideratzeko ereduak idatziak: Ocu, hipotecas, modelos, reclamación extrajudicial cláusula suelo (<https://www.ocu.org/dinero/hipotecas/modelos/reclamacion-extrajudicial-clausulas-suelo/ver-modelo>)

entitateak derrigortu zituen, zoru klausula zuten kontsumitzaileei horren berri ematera. Informazioa web orrialdeetan edota sukurtsaletan. Entitateak erreklamazioa jasotzen zuen momentuan, honek bueltatu beharreko kantitateen berri eman behar zion kaltetuari eta jakinaraziz zein interes zeuden baita ere. Eskaerari ezezkoa adierazten bazion, hura argudiatu beharra zegoen eta dirua ez bueltatzeko arrazoien berri eman behar zitzaion kaltetuari.

Lehenago laburki azaldu bezala, entitateak eskaera onartuz gero, bankuak emandako konponbidea onar zezakeen kaltetutako pertsonak. Akordioa lortzeko eta diruaren bueltatzea gauzatzeko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango zen eskaera aurkeztu zen momentutik kontatzen hasita. Oso garrantzitsua den kontzeptu bat argi utzi beharra zegoen, izan ere judizioz kanpoko eskaerak suposatzen zuen dohainekoa izango dela. Soilik ordainketa egiteko beharra emango zen, entitatearen eta kontsumitzailearen arteko akordioa ematen zenean. Akordio honetatik ondorioztatuko ziren alde batetik notaritza gastuak eta beste alde batetik erregistro gastuak³⁷.

Hainbat supostutan epaiketaz kanpoko erreklamazio sistemaren amaiera suertatuko litzateke eta 1/2017ko ED-ak 3. artikuluan³⁸ azaltzen duen bezala, hauek lirateke supostu horiek:

³⁷Gastu hauei buruzko analisisia AGÜERO ORTIZ, Alicia: “Nulidad de la cláusula de gastos en préstamos hipotecarios”, *Revista CESCO de Derecho de Consumo*, 2016, 8-36.orr: “ El TS declaró que la cláusula que repercute al consumidor-hipotecante la obligación de asumir en exclusiva los gastos derivados de la intervención notarial y registral es abusiva. Por una lado, porque repercute al consumidor gastos de gestión que no le son imputables. Por otro lado, porque imponen al consumidor gastos derivados de la preparación de la titulación que por naturaleza corresponden al empresario-prestamista toda vez que, tanto el arancel de los notarios como el de los registradores de la propiedad , atribuyen la obligación de pago al solicitante del servicio o a cuyo favor se inscriba el derecho o solicite una certificación (...) Finalmente, recalco que el hecho de la cláusula atribuyera la totalidad de estos gastos al consumidor, sin reflejar una mínima distribución equitativa, comportaba un desequilibrio relevante en los derechos y obligaciones de las partes que el consumidor no hubiera aceptado razonablemente en el marco de una negociación individualizada (...) debe recalarse que la nulidad de estos gastos se refiere a los relativos a la constitución del préstamo hipotecario y no a los gastos derivados de la compraventa del inmueble”.

³⁸Honi gehitu behar zaio, 3. artikuluan judizioz kanpoko erreklamazio sistema jasotzen dela eta artikulua honek zera dio: “**1.** Las entidades de crédito deberán implantar un sistema de reclamación previa a la interposición de demandas judiciales, que tendrá carácter voluntario para el consumidor y cuyo objeto será atender a las peticiones que éstos formulen en el ámbito de este real decreto-ley. Las entidades de crédito deberán garantizar que ese sistema de reclamación es conocido por todos los consumidores que tuvieran incluidas cláusula suelo en su préstamo hipotecario. **2.** Recibida la reclamación, la entidad de crédito deberá efectuar un cálculo de la cantidad a devolver y remitirle una comunicación al consumidor desglosando dicho cálculo; en ese desglose la entidad de crédito deberá incluir necesariamente las cantidades que correspondan en concepto de intereses. En el caso en que la entidad considere que la devolución no es procedente, comunicará las razones en que se motiva su decisión, en cuyo caso se dará por concluido el procedimiento extrajudicial. **3.** El consumidor deberá manifestar si está de acuerdo con el cálculo. Si lo estuviera, la entidad de crédito acordará con el consumidor la devolución del efectivo. **4.** El plazo máximo para que el consumidor y la entidad lleguen a un acuerdo y se ponga a disposición del primero la cantidad a devolver será de tres meses a contar desde la presentación de la reclamación. A efectos de que el

1. Finantza entitateak kontsumitzailearen eskaera baztertzen baldin badu.
2. Hiru hilabete pasa baldin badira eta Finantza entitateak eskerari erantzunik ez badio ematen.
3. Kontsumitzailea ados egon ezean bankuak eskainitako kalkuluarekin edota bankuak eskainitako kantitatea baztertzen badu.
4. 3 hilabeteren buruan kontsumitzailearen eskura ez bada jarri erreklamaturako diru kantitaterik.

Sistema honen bidez haien burua asetuta ikusten ez zuten kontsumitzaileek jurisdikzio sistema jo zezaketen, horretarako demanda tarteratuta, zoru klausulen deuseztasunean oinarrituta eta bidegabeki kobratutako kantitateak erreklamaturaz. IBÁÑEZEK 1/2017 Errege Dekretuari buruzko iruzkina egin zuen eta bertan adierazi zuen lehenago aipatutako 2013ko sententziak Europar Batasuneko hainbat kideren auzitegiek emandako epaien aurka egin zuela. Hau da, Espainiar auzitegiek beste hainbat kideren auzitegiek emandako epaiekiko diskrepantzia adierazi zuten. Espainiar bankuen garaipena izan zen aipatutako epai horrekin sententziarekin suertatu zena, izan ere autore honek adierazi zuenez *“fallaron en (...) contra de la devolución retroactiva del dinero liquidado en aplicación de la cláusula suelo, apoyando así a los bancos; según estos, la cláusula era válida, fruto de la libertad contractual, y los consumidores la habrían aceptado libremente”*³⁹.

consumidor pueda adoptar las medidas que estime oportunas, se entenderá que el procedimiento extrajudicial ha concluido sin acuerdo: a) Si la entidad de crédito rechaza expresamente la solicitud del consumidor. b) Si finaliza el plazo de tres meses sin comunicación alguna por parte de la entidad de crédito al consumidor reclamante. c) Si el consumidor no está de acuerdo con el cálculo de la cantidad a devolver efectuado por la entidad de crédito o rechaza la cantidad ofrecida. d) Si transcurrido el plazo de tres meses no se ha puesto a disposición del consumidor de modo efectivo la cantidad ofrecida. **5.** Las entidades de crédito informarán a sus clientes de que las devoluciones acordadas pueden generar obligaciones tributarias. Asimismo, comunicarán a la Agencia Estatal de la Administración Tributaria la información relativa a las devoluciones acordadas. **6.** Las partes no podrán ejercitar entre sí ninguna acción judicial o extrajudicial en relación con el objeto de la reclamación previa durante el tiempo en que esta se sustancie. Si se interpusiera demanda con anterioridad a la finalización del procedimiento y con el mismo objeto que la reclamación de este artículo, cuando se tenga constancia, se producirá la suspensión del proceso hasta que se resuelva la reclamación previa”.

³⁹IBÁÑEZ JIMÉNEZ, Javier. “Comentario al Real...”, zit., 167. orr: “La sentencia del 21 de diciembre del Tribunal de Justicia de la Unión Europea impuso a los bancos europeos la devolución retroactiva a sus clientes de lo cobrado en virtud de la muy extendida cobertura de riesgo de tipos de interés conocida como “cláusula hipotecaria suelo” que fijaba un interés mínimo a pagar por el cliente hipotecario con préstamo a interés variable, si los tipos bajaban en el mercado. En general, ese interés “suelo” ha rondado en los contratos torno al 2,5% anual, lo que ha resultado en elevadas pérdidas para los clientes, si se considera que el tipo de interés bancario europeo de referencia o Euribor ronda una media del 0,06 % en el último bienio, llegando a ser negativo; así, el 24 de febrero de 2107 fue el -0,11%”.

Hala ere EBJA-ren 2016ko epaiarekin argi geratu zen Espainiak Europar Batasuneko irizpideari jarraitu behar ziola eta beraz bankuek bezeroei bueltatu beharko zizkietela azkenengo hauek gehienez ordaindutako kuotak. Horregatik, eta gehienbat Europar Batasuneko irizpidearekin konkordantziarekin egoteko asmotan, 1/2017 Errege Dekretua sortu zen. Bide honetatik jarraituz beraz, kontsumitzaileek bankuarekin akordioak egin ditzakete. Atzerago aipatutako autoreak horrela adierazten du bere iruzkinean kontsumitzaileak egin beharrekoari buruz: *“los afectados por una cláusula suelo pueden reclamar en su banco. Este estudiará las reclamaciones y decidirá a qué clientes cobró indebidamente el interés mínimo o “suelo”, superior al que habría resultado del préstamo variable sin aplicar dicha cláusula”*.

Hala ere atal ilun bat aipatzen du IBÁÑEZ autoreak, izan ere aditzera ematen du bankuek ez zituztela onartu bezero profesionalak (finantza jardueretan adituak) egindako diru eskaera horiek. Izan ere, lehentasuna emango zitzaien formakuntzarik ez zuten pertsoneri, izan ere hauen ahalegina handiagoa baitzen. Formakuntzarik gabeko pertsonetaz gain jubilatuak, ikasketarik gabeko pertsonak eta profil horretakoak izango ziren lehentasuna izango zutenak eskaera gauzatzen zutenean. Gainera, autore honek kontuan izan beharreko gomendio batzuk ematen ditu⁴⁰:

1. **Lehenengo** gomendioan azaltzen du, eskaera gauzatzen duenak pertsona fisikoa izan behar duela, hau da kontsumitzailea. Adierazi zuen ere epaile batzuek ere multzo honen barnean sartu zituztela enpresa txikiak.
2. **Bigarrenik** azaldu zuen, zoru klausula dela banketxeek kobratuko zuten interes minimo bat, zeina interes tipo finkoko edota aldakorreko maileguen baitan txertatzen zen.
3. **Hirugarrenik**, adierazi zuen bankuek hau antolatu beharra zutela eta horretarako eta eskaerak modu egokian bideratuak eta onartuak izateko, web orria, email-a nahiz langileak kontratatu beharko zituztela.
4. **Laugarren** atalean adierazi zuen, bankuek bueltatuko zituzten diru kopuruen berri eman behar ziotela bezeroari eta adierazi behar ziotela interesen desglosea. Bezeroak onartzen baldin bazuen bankuek proposatzen zion zenbatekoa, kontu korrontean sartuko zitzaion.
5. **Bosgarren** puntuan idatzi zuen, bankuak eskaera baztertzen baldin bazuela, bankuak argudiatu beharko zuela horren zergatia.

⁴⁰IBÁÑEZ JIMÉNEZ, Javier. “Comentario al Real...”, zit., 169-170. orr

6. **Seigarren** atalean azaldu zuen kontsumitzaileak beherapenak edota gauzak onar zitzakeela diru kopuru zehatz baten ordez.
7. **Zazpigarren** puntuan, garrantzia handiko gastuak aipatzen ziren; hala nola notaritzatik edota erregistrokoak ondorioztatutakoak. Hauek akordiotik sortzen direnez arantzel finkoek adierazitakoaren bidez ordainduko ziren.
8. **Zortzigarren** multzoan, azaldu zuen nola bezero batek bankuak egindako eskaintza baztertzan bazuen eta honen aurkako demanda tarteratzen bazuen auzitegietan eta gainera epaileak bankuak eskaintakoa baino diru kopuru handiago bat lortzen bazuen, bankuak ordaindu beharko zituela kostak judizialak.

4.- Zoru klausulen nobazioa

4.1.- Nobazioaren kontzeptualizazioa

Aurrekoarekin lotura eginez, Auzitegietan erreklamazioek ez zuten harrera onik izan eta hau aprobetxatuz, bankuek haien bezeroei dei egin zieten zoru klausula kontratutik ezabatzeko promesa eginez edota zoru klausularen beherapena eginez. Orokorrean, egoera hauetako bat hautatzen zuten kontsumitzaileek, gehiegikeriaz kobratu zieten erreklamatzeko aukera galtzen zuten. Askotan ere, errenuntzia horren gardentasuna kolokan jarri zen eta aditu askok adierazi izan zuten zoru klausulak bezain ilunak zirela errenuntzia hauek⁴¹.

Bankuen trikimailuek edota estrategiek ez zuten eragin handirik izango Auzitegi Gorenaren Urriak 16ko 558/2017 sententziarekin⁴². Sententzia honetan argi adierazi zuten epaileek zoru klausularen modifikazioa edo nobazioa, jatorrizko zoru klausula bezain nuluak zirela. Hau

⁴¹CONDE FUENTES, Jesús. “El procedimiento extrajudicial para la restitución de las cantidades pagadas en aplicación de las cláusulas suelo”, *Revista de Derecho Civil*, 219-233. Orr “No obstante, nos encontramos con otro problema adicional que es el de determinar qué entidades financieras incluyeron en sus contratos de préstamo hipotecario cláusulas suelo que puedan considerarse como abusivas, puesto que algunas de ellas han declarado que las cláusulas suelo insertas en sus contratos cumplen con el control de transparencia fijado por el Tribunal Supremo en su sentencia de 9 de mayo de 2013 (...) Del mismo modo, la norma aclara que la condición de consumidor tan solo será predicable de aquellas personas físicas que reúnan los requisitos previstos en el artículo 3 (...) La Disposición Adicional Primera del RD-ley 1/2017 obliga a las entidades financieras a poner en marcha, en el plazo máximo de un mes, las medidas necesarias para dar cumplimiento al procedimiento extrajudicial establecido (...) dicha carencia produce una situación de desigualdad entre los consumidores reclamantes y las entidades financieras. En primer lugar, porque el «sistema de reclamación previa» vendrá impuesto por cada una de las entidades financieras, por lo que cada una de ellas establecerá las pautas que a su derecho o interés convengan. Y en segundo lugar, porque no se ha previsto la intervención de un tercero imparcial que equilibre la negociación entre el consumidor y la entidad financiera”.

⁴²Auzitegi Goreneko sententzia, zibileko sala, 2017ko urriaren 16a (ROJ: STS 3721/2017).

guztia Kode Zibileko⁴³ 1208. artikuluan⁴⁴ oinarrituta. Honako hau argudiatu zuten AG-k: *“determina la nulidad de la novación cuando también lo sea la obligación novada, salvo que la causa de nulidad solo pueda invocarla el deudor o que la ratificación convalide los actos nulos en su origen”* Honi gehituz, Auzitegi gorenak erabaki zuten bankuak zoru klausula kontratutik ezabatu behar zuela, izan ere nobazio bidez ezarritako obligazio berriak jatorrizko obligazioaren bizioak izango zituelako. Are gehiago, nobazioa soilik izango zen baliozkoa kontsumitzaileek bizio edo defektu horiek konpontzeko borondate espresua adierazten baldin bazuten. Defektu horiek konpontzeko 1311. artikuluko⁴⁵ betekizunak betetzea beharrezkoa zen. Kasu zehatz honetan kontsumitzaileei ez zitzaien honen berri eman eta horren ondorioz jatorrizko obligazio biziatu baten nobazioa ez da konbalidatuko⁴⁶. eta horretaz gain, kaltetuei gehiegikeriaz ordaindutako dituen kopuru guztia bueltatzera kondenatu zuten *Banco Caja España* banketxea. Auzitegi Gorenaren epaiak *Banco Caja España* kondenatu zuten, adieraziz klausula

⁴³BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo: “Artículo 1208”, Comentarios al Código Civil, Thomson Reuters Aranzadi, 2013, 1675-1679.orr: “Además de la existencia material de la obligación a novar, es también preciso que sea válida y apta para producir efectos jurídicos. No son ,pues, susceptibles de novación las obligaciones nulas de pleno derecho. Siendo el negocio novatorio un “posterius” que depende de la obligación antecedente, cuando ésta se encuentre afectada de nulidad absoluta, la novación será nula -como expresamente recuerda el art. 1208, primer inciso-. En consecuencia, puesto que en la novación la segunda obligación sólo nace en cuanto se extingue la primitiva, siendo ésta nula aquélla carecería de causa, y por lo tanto, no llegará en realidad a constituirse (...) Si en verdad existe una voluntad negocial y el acuerdo reúne los requisitos necesarios (art. 1261 CC), llegará a constituirse una obligación, pero ex novo, no por virtud de un convenio novatorio, que no lo ha habido...Cosa distinta es que la novación haya sido efectuada padeciendo las partes error precisamente acerca de la validez (o existencia) de la obligación a novar, es decir, creyendo que era válida, cuando en realidad era nula (o nunca existió o ya se había extinguido). Mientras que en el supuesto anterior la conciencia de la nulidad puede permitir probar que lo que se quiso fue dar vida a una nueva obligación (mediante un contrato ex novo), cuando las partes han padecido error falta la voluntad de constituir autónomamente esa obligación, ya que sólo se quiso que naciera si extinguía a cambio la precedente, y no en caso contrario”.

⁴⁴Kode Zibileko 1208. art: *“Berritzea deuseza da, jatorrizko betebeharra ere deuseza bada, salbu eta deuseztasunaren arrazoia zordunak bakarrik inboka dezakeena, edo berrespenak jatorriz deusezak diren egintzak baliozkotzen dituztean”*.

⁴⁵Kode Zibileko 1311. art: *“Baieztapena esanbidez nahiz isilbidez egin daiteke. Isilbidezko baieztapena badela ulertuko da, deuseztasun arrazoia jakin eta hori amaitu ondoren, arrazoi hori inbokatze eskubidea duenak egintzaren bat burutu eta egintza horrek nahitaz erakusten duenean eskubideari uko egiteko borondatea”*.

⁴⁶Auzitegi Gorenako sententzia, zibileko sala, 2017ko urriaren 16a, 6. OJ, 3.parrafoa, 8.parrafoa eta 9. parrafoa: *“Se trata de una nulidad de pleno derecho, que impide que el consumidor pueda quedar vinculado por la cláusula abusiva (...) La nueva obligación adolecerá de los mismos vicios que la obligación novada, salvo que la voluntad de los interesados pueda y quiera subsanar tales defectos. Para que tal subsanación se produzca, es preciso que se den los requisitos que el art. 1311 del Código Civil y la jurisprudencia que lo desarrolla establecen para la convalidación de los negocios anulables. (...) En el caso enjuiciado, la protesta por la inclusión de una cláusula de la que no se advirtió a los prestatarios, pese a su trascendencia, y la petición de que al menos se les reduzca el suelo al fijado en otros contratos de la misma promoción, incluso si se tratara de un vicio subsanable (que no lo es), no podría considerarse en ningún caso como una convalidación del contrato pues no constituye un acto inequívoco de la voluntad tácita de convalidación o confirmación del contrato, en el sentido de crear, definir, fijar, modificar, extinguir o esclarecer sin ninguna duda dicha situación confirmatoria”*.

kontratutik ezabatu beharra zegoela eta zoru klausularengatik gehiegikeriaz kontratutako kopuruak ere bueltatu beharra zegoela⁴⁷.

Nobazioak zer suposatzen duen epai batean ikusi ostean, ideia bat argi izan behar dugu. Bada nobazioa, zoru klausularekin zerikusia ez duen beste instituzio bat da, baina bata bestearekin agertu izan dira. Askotan zoru klausula agertzen den kasuetan nobazioa ere azaldu izan ohi da, baina beste kasu askotan ez zen halakorik eman. Hala ere, nobazioa lehen azaldu bezala, mailegu kontratu batzuetan kontsumitzaile eta banketxeen arteko akordioa izan zen, bankuek askotan erabiltzen zutena, kontsumitzaileekin zituzten gaizki ulertuak/harremanak gatazka juridiko ez bihurtzeko asmoz.

Bankuek tresna juridiko hura erabiltzen trebatuta zeuden baina nobazioaren nondik norakoak ulertzeko, Kode Zibileko 1203, 1204, 1207⁴⁸ eta 1208. artikuluetara jo beharra dago. Hasteko, BERCOVITZ-ek 1203. artikulua⁴⁹ zertan datzan azaltzen du eta nobazioak bere baitan hainbat aspektu dituela dio, obligazioen dinamikan ikus daitezkeenak⁵⁰. Aspektu hauek obligazioen iraungitzea, sortzea eta aldatzea dira. Gainera nobazioak suposatzen du baita ere subjektuen aldaketa eman daitekeela eta gainera 1156. artikuluan azaltzen den bezala, obligazioak iraungitzeko modu tipikoa da⁵¹.

Kode Zibilak gainera ez du nobazio figuraren kontzepturik ematen eta erregulatzeko garaian nahiko zehaztugabe eta nahasmenez egiten du. Esan beharra dago gainera doktrinaren baitan eztabaida handia sortu izan dela nobazioa sailkatzeko momentuan. Batzuek diote nobazioa beti dela iraungitzailea eta doktrinaren beste zati batek dio nobazioa aldatzailea dela. Iraungitzaileak jatorrizko obligazio bat iraungi eta berri bat sortzeko helburua du eta

⁴⁷Auzitegi Goreneko sententzia, zibileko sala, 2017ko urriaren 16a, epaia 2.4 parrafoa: “*Condenar a Banco Caja España de Inversiones, Salamanca y Soria SAU a eliminar dicha condición general del contrato de préstamo hipotecario y a la devolución de cuantas cantidades haya cobrado en aplicación de la referida cláusula (sea en el 3%, sea en el 2,5% de suelo), con sus intereses legales devengados desde la fecha de cada cobro periódico*”.

⁴⁸Kode Zibileko 1207. art: “*Berritzearen ondorioz betebehar nagusia azkentzen denean, betebehar erantsiek iraun egingo dute, adostasuna zein hirugarrenek eman ez eta horrentzat probetxugarri diren heinean*”.

⁴⁹BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo: “De la novación”, *Comentarios al Código Civil*, Thomson Reuters Aranzadi, 2013, 1660-1663. orr.

⁵⁰Kode Zibileko 1203. art: “*Betebeharrak aldaraz daitezke: 1. Euren objektua edo baldintza na gusiak aldatuz. 2. Zordunaren ordeztu beste pertsona bat jarritz. 3. Hirugarrena hartzekodunaren eskubideetan subrogatuz*”.

⁵¹Kode Zibileko 1156. art: “*Betebeharrak azkentzen dira: Ordainketa edo betetzeagatik. Zor den gauza galtzeagatik. Zorra barkatzeagatik. Hartzekodunaren eta zordunaren eskubideak bateratzeagatik. Konpentsazioagatik. Berritzeagatik*”.

aldatzaileak aldiz, jatorrizko obligazioa aldatzea du helburu. Nahiz eta doktrinaren zati handi batek baztertu egin duen nobazio aldatzailea, bere figura onartu egiten dute. Gainera nobazio aldatzailearen figuraren babesle diren horiek, argudiatzen dute oinarriak Kode Zibileko 1203. eta 1207. artikuluetan daudela. Gainera argudiatu izan da, 1203. artikulua oinarritzat harturik, benetako esentzia gordetzen duena nobazio aldatzailearena litzatekeela zeren eta obligazioaren aldatzea du oinarri eta inola ere ez obligazioa iraungitzearena. Hala ere, guzti honetatik argi ulertu behar dena da jakitea noiz dugun eskuartean bata edo bestea.

1204. artikuluari⁵² buruz, BERCOVITZEK⁵³ azaltzen du nobazio iraungitzaileari egiten diola erreferentzia. Izan ere, jatorrizko obligazioa iraungi egiten da eta beste obligazio berri baten jaiotza ematen da. Honetaz gain ideia bat goraiatzen du, hain zuzen, lehenago aipatutako nobazioaren benetako esentzia zeina artikulua honetan argi ikus daitekeen. Honek obligazio berri baten sorrerarekin eta beste baten iraungitzearekin du zerikusia, izan ere, nobazio iraungitzailearen figuran bi egoera hauek bata bestearekin agertzen baitira.

Nobazioaren oinarri diren artikuluekin jarraituz, 1207. artikulua⁵⁴ adierazten digu obligazio nagusiari atxikita dauden obligazio akzesorio horietatik zeintzuk iraungiko diren eta zeintzuek jarraituko dute existitzen. Autore honen artikulua hauen iruzkinarekin jarraituz, askotan aipatzen den “regla general” edo arau orokorra ikus daiteke proiektatua artikulua zehatz honetan. Arau orokor honek adierazten diguna da, obligazio nagusiarekin batera doazen obligazio akzesorio guztiak iraungi egingo direla. Aipatzen duenez, “accessorium sequitur principale” printzipioa aplikatzea bezala litzateke. Gainera izaera akzesorioa duten bestelako bermeak ere obligazioaren iraungitzearekin batera desagertu egiten dira. 1207. artikulua bigarren atalaren erdialdean autoreak adierazten du “*prior obligatio*”-a desagertzen den momentuan horri atxikita agertzen diren ineteresak edota klausula penalak guztiz desagertzen dira. Hala ere, aldeek kontrakoa adosten badute, aurretik zeuden obligazioak “*nova obligatio*”-an txertatu edo atxikitu ditzakete. Beraz artikulua honekin jarraituz, aditzera ematen du nobazio iraungitzailea denean obligazio akzesorioak ere iraungi egingo direla, baina aldiz nobazio aldatzailea denean obligazio akzesorioek biziraun egingo dute. Beraz obligazio aldatzailean

⁵²Kode Zibileko 1204.art: “Betebehar bat beste batekin ordeztu, eta, ondorenez, aurrekoa azken da din, nahitaezkoa da hori argi eta garbi adieraztea, edo betebehar zaharra eta berria zeharo bateraezinak izatea”.

⁵³ BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo: “De la novación”, Comentario al Código Civil, Thomson Reuters Aranzadi, 2013, 1663-1668.orr.

⁵⁴ BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo: “De la novación”, zit., 1672-1675.orr.

soilik aldaketak txertatuko direnez horri atxikita dauden bestelako obligazioek ez dute aldaketarik jasango (aldeek adostu ezean).

Kode Zibileko 1208. artikularekin⁵⁵ jarraituz, ⁵⁶BERCOVITZEK azaltzen du nobazioa ez dugula ulertu behar obligazio baten iraungitzea eta beste baten sorrera soil bezala. Iraungitzen den obligazioaren eta sortzen den obligazio berria betiere ligatuta daude. Hau da, obligazio berria soilik sortuko da baldin eta jatorrizkoa iraungitzen bada. Honi deitzen zaio beraz “*sinlagma novativo*” batak bestearen beharra dutelako bai jaiotzeko eta baita iraungitzeko. Batak bestearen beharra dutela irudikatzeko, autore honek adibide praktikoa bat jartzen du esanez jatorrizko obligazioaren iraungitzea ez badela ematen ez da emango ezta ere obligazio berri baten sorrera eta beraz ez legoke nobaziorik. Eta gauza berbera gertatzen da obligazio berriarekin zeren eta hau ez bada sortzen, aurreko obligazioak dirau eta azkenik ez litzateke nobaziorik emango hemen ere. Autore honek gehitzen du ezin daitekeela gertatu inongo nobaziorik baldin eta ez badago jatorrizko obligaziorik. Gainera beharrezkoa izango da jatorrizko obligazioa baliozkoa izatea. Baliozkoa ez bada, nobazioa nulua izango da eta beraz ez luke inongo efektu juridikorik sortuko. Hala ere, azaltzen du nola nobazioa eman daitekeen jatorrizko obligazioa nulua delarik eta hau suertatuko da alderdiak jakinaren gainean daudenean jatorrizko obligazioaren nulitateaz eta sortuko duten obligazio berria baliozkoa denean.

BERCOVITZEN azalpen sakonen ostean, zaila da argitzea zer den nobazioa edota zer suposatzen duen tresna juridiko⁵⁷ honek. Horregatik definizio sinple bat planteatzea da egokiena. Nobazioa da beraz obligazio baten iraungitzea⁵⁸ edota aldatzea betiere obligazio

⁵⁵Kode Zibileko 1208.art: “*Berritzea deuseza da jatorrizko betebeharra ere deuseza bada, salbu eta deuseztasunaren arrazoiak zordunak bakarrik inboka dezakeenean, edo berrespenak jatorriz deusezak diren egintzak baliozkotzen dituenean*”.

⁵⁶BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo: “De la novación”, zit., 1675-1679. Orr.

⁵⁷Kode Zibilak aipatzen duen bezala eta beraz gure ordenamenduko Zuzenbide Positiboak argi adierazten duen bezala, 2 nobazioa kategorian ezberdindu behar ditugu: alde batetik **obligazioa iraungi edota aldatzen duen nobazioa** eta beste alde batetik **nobazio objektiboa eta subjektiboa**. Zuzenbide positiboa deskribatuz, OLLERO TASSARA, Andrés: “Todos de acuerdo: Sólo es derecho el derecho positivo.”, *UCM Editorial Complutense*, 2012, 927-944.orr : “Por derecho que es se entendería el derecho positivo o puesto; por contraposición a un derecho natural al que habría que considerar meramente supuesto. Éste no sería susceptible de captación racional, nos perdería en evaluaciones de justicia —más morales que jurídicas— y tendría por supremos intérpretes a quienes no se han sometido al contraste legitimador de las urnas. Desde esta perspectiva, el derecho natural no sería en realidad derecho, sino una propuesta moral sobre cómo debería ser el derecho positivo”.

⁵⁸**Nobazio iraungitzailea**: Kontzeptu hau Kode Zibileko 1156. artikuluan aipatzen da. Izan ere, artikulua horrek dio nobazioa obligazioak iraungitzen dituen kausetako bat dela. Ikus dezakegu nola obligazio baten aurre existentzia

berri bat sortzen delarik, zeinek aurretik zegoen obligazioa aldatzen edo iraungitzen duen. Hori dela eta, obligazio baten menpe dauden alderdiek aurretik zuten obligazio hori aldatzea edota iraungitzea erabakitzen duten. Obligazio berri baten menpe jarriko dira eta aurrekoa indargabetu egingo dute⁵⁹. Gainera ez dugu ahaztu behar subjektuak aldatu daitezkeela baita ere⁶⁰.

Nahiz eta definizio honek kontzeptua ulertzeko balio duen, gogoan izan beharra dago hainbat nobazio mota aurki ditzakegula gure ordenamendu juridikoan zehar⁶¹. Kontuan hartu beharra

ematen den eta horretaz gain, obligazio berri baten sorrera zeinak aurreko obligazioa ordezkatzeko duen. Egoera zehatz honetatik lau kontzeptu edo elementu ondorioztatzen dira. Elementu horiek alde batetik “Nova obligatio”, hau da nobaziotik sortuko den obligazio berria, “Animus novandi”, edota aldean nahia obligazio berri bat sortzeko eta hasieratik sortzen dena ordezkatzeko eta azkenik “aliquid novi” zeinak “prior obligatio”-ri ezartzen zaion aldaketa litzateke. Aurreko obligazioaren iraungitzea gerta dadin era argi batean islatuta gelditu beharko da obligazio zaharraren desagertzea. Baita ere berrienak zaharrena ordezkatzeko du, 2 obligazioak bata bestearekin guztiz bateragarriak ez baldin badira. Egoera horietako bat ematen denean obligazio berriena indarrean sartuko da eta hala, zaharrena iraungi egingo da.

⁵⁹**Nobazio objektiboa:** Nobazio objektiboak obligazio nagusiari atxikita dauden baldintzen aldaketa suposatzen du. Hala nola obligazioaren naturari edota zenbatekoari dagozkionak. Gainera jakin beharra dago modu, denbora edo leku bezalako aldaketak soilik akzidentalak direla.

⁶⁰**Nobazio subjektiboa:** Kasu honetan ez dira gauzatzen baldintzen aldaketak, baizik eta harreman juridikoan alderdi diren norbanakoen aldaketa ematen da. Honek esan nahi du hartzekodun edota zordun figurak aldatu egiten direla eta horien lekuan bestelako pertsona fisikoak edota juridikoak jarriko dira. Gainera aipatu beharra dago, jatorrizko zordunaren aldaketa eman daitekeela honen ezagutza gabe. Hau da, ez da beharrezkoa izango jatorrizko zorduna jakinaren gainean egotea, baina jatorrizko zordunaren aldaketa suertatu ahal izateko, beharrezkoa izango da hartzekodunak aldaketa hori onartzen duela esanbidez adieraztea. Nobazio subjektiboari dagokion azalpena CASTELLANOS CÁMARA, Sandra: “Novación y modificación de la relación obligatoria: El artículo 1203 del Código Civil Español*”, *Rev. Boliv. de Derecho*, 2019, 168-203.orr: “El concepto de la alteración objetiva convencional de la relación obligatoria”: “...la **novación subjetiva activa** por cambio de acreedor (art. 1203.3 CC), vía subrogación, se concibe como transmisión del crédito primitivo (art. 1212 CC), en un plano equivalente a la cesión (arts. 1526 y ss.) y, por tanto, como novación modificativa que solo mediando voluntad expresa y terminante de las partes podrá ser extintiva (art. 1204 CC)... ; **la novación subjetiva pasiva** por cambio de deudor (art. 1203.2 CC) se regula en principio como extintiva, pero nada impide a las partes convenir la “sucesión” en la deuda ex art. 1255 CC; y por último, **la novación objetiva** (art. 1203.1 CC) es la única que, en determinados supuestos, será extintiva como consecuencia de la entidad de lo alterado e independientemente del animus de las partes... De lo recién expuesto se percibe el marcado protagonismo que en esta materia se concede a la autonomía de la voluntad, prácticamente concluyente del alcance de la “novación”, de la que, dicho sea de paso, y entendida propiamente como extinción por creación, queda bien poco”.

⁶¹**Nobazioa aldatzailea:** Kasu honetan hasierako erlazioak dirau, baina bere edukia aldatu egiten da eta aurrez existitzen ziren obligazio akzesorioak eta bestelako bermeak guztiz mantenduz. Honek esan nahi jatorrizko obligazioaren aldaketa batzuk gauzatzen direla edota jatorrizko obligazio horren betebeharrak akzesorioak alda daitezke. Aldaketa hauek izan daitezke adibidez kantitate aldaketa, ordainketa modua edota obligazioa betetzeko denbora aldatzea. Oso garrantzitsua da ere nobazioak areagotu egiten duela zor bat, eta hala gertatzen denean fidatzaileari ez dio inolako kalterik suposatuko, betiere aldaketa onartzen ez duen bitartean. Beraz nobazio aldatzailearen barne aurki ditzakegu alde batetik jatorrizko obligazio bat, “aliquid novi” hau da, txertatzen ezberdintasuna aurreko obligazioarekiko eta “nova obligatio” edo obligazio berria. Honen harira CASTELLANOS CÁMARA, Sandra: “Novación y modificación...” zit., 168-203.orr: “La obligación anterior es tanto presupuesto ineludible como parte necesaria de la nueva relación obligatoria. Vistas las cosas desde esta

